

TOKIKOM

2021eko iraila | 217. zenbakia

aiZar!

txoria eta historia



Gabriel Etxebarria, euskaltzalea

Zamudio zalea

Onintza Enbeita Beste Bira Taldea Etorbizuna Eraikitzen



Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitetz berriemate ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baseri Antzokian).

-  4 Eretxiak
-  5 Laburrak eta albisteak
-  11 Gure merkatariak
-  12 Gurean izan da... Onintza Enbeita, bertsolaria
-  14 Gaztea eta... Unai Arrugaeta, irakaslea
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Gurpide elkarteak
-  20 Gabriel Etxebarria, euskaltzalea
-  24 Beste Bira Loiu Taldea
-  26 Institutua
-  28 Etorkizuna Eraikitzen plataforma
-  30 Zu argazkilari... Oporrak
-  33 Berbalagun
-  34 Emaus
-  35 Aikorizketa
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda



12 Onintza Enbeita



24 Beste Bira Loiu Taldea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa (Lagatzu, Zorriketan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Einer Larrabeiti, Asier Oruetxebarria, Itsasne Zubiri, Beñat Cristobal, Joanes Camara, Iratxe Pirla, Jon Etxebarria, Aitor Lasa, Alain Eiguren, Idoia Mendizabal, Jabier Perez, Javi Melendez,

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik

Koaderno barriak

Lehenengo egunean supermerkatu batean erosketak egiten nenbilela, ikasturte barria gainean geunkana argi egoan. Han egozan boligrafo, arkatz, liburuak eta abar. Euren artean koaderno egindako zutabe artezak, barri-barriak, barrutik zuri-zuriak, erabili bakoak. Denbora gitxian eragiketaz, idazlanez edo iraskasleen karikatuz beteko dira. Beharbada, beranduago isilpeko maitatu barriaren izena be idatziko dabe. Baina ikasle guztiek koaderno zuri horreetatik zer edo zer ikasiko dabe; asko ala gitxi, baina ekarpen barriz jantziko dira ikasleak. Ikasgaika antolatuta eta gai bakoitzaren izena letra larriz azpimarratuta. Danetariko gaiak emongo dabez, betiere, etorkizunerako baliogarriak izango diranak.

Guk, helduok, barriz, gure balizko koaderno zuri horreetan etorkizunerako baliogarriak izango diran zeintzuk gai azpimarratuko geunkez? Zeintzuk dira

ikasle behar doguzan gaiak? Zeintzuk dira landu behar doguzan gaitasunak? Gizaki lez, zein eremu landu beharko geunke heldutasunera heltzeko? Itaun larregi, ezta?

Buruari bueltaka nabilko eta hainbat gai jatorradaz. Batzuk barriak, beste batzuk zaharrak. Edozein albistegi entzunda, argi dago: Afganistan, argindarraren prezioa (eta gure poltsikoari eragiten dutson presioa), hainbat taldek jasaten duten jazarpena, ERTE, ERE eta holango siglak. Asko eta denatarikoak dira. Eta zer ikasiko dogu horreetatik? Ikasleek beren gai barrietatik ikasten dabe, baina geuk? Zerbait ikasiko dogu? Aurretik aipatutako "gai" horreek ez dira barriak, agian beste izen bat eukiko dabe, baina betikoak dira. Gizakiari eta gizarteari estu lotuta dagoz. Gai bakoitzaren ordez aspaldi izandako baliokide bat egokitu leitekio.

Nahiz eta mendeak igaro, gizakiak ez dau ikasi. Joxean Artze zanaren olerkiak



ASIER ORUETXEBARRIA
Irakaslea

holan diño: "Iturri zaharretik edaten dut / ur berria edaten / beti berri den ura / betiko iturri zaharretik." Bada, nire ustez, arazo barriak ur barriaren modukoak dira. Betiko gizarte zaharretik sortzen dira arazo zahar barriak; eta nahiz eta milaka koaderno bete, ez dugu ezer ikasi. Espero daigun gure gazteek ikasturte honetan, koadernoetan ez dagozan gauza asko ikasi daiezan. Zorionez edo zoritxarrez, Garik abesten dauan moduan, *Esperantzara kondenatuta* gagoz.

Iritziak gure egunean zehar dauden "hutsune" ugari betetzen dituztela ikusten dut maiz. Taberna bateko terraza batera hurbildu, eta zarata gehien dagoen mahaian, iritziak. Ilargiraino luzatzen diren bileretan, iritziak. Telebistako kazetarien tonuan, albisteei jartzen zaien soinuak eta titularretan, ezkutuan baina azken finean, iritzia. Hurbilenekoekin eztabaidan, eta ez elkarrizketan, i-ri-tzi-a. Baina, zarata eta ke guzti horren erdian, zein da nire egia eta ez iritzia?

Hasteko, nire egia ez da pentsatzen dudana argudio bat, ezta asteetan edota urteetan zehar errepikatu dudana mintzaldia. Egia ez delako zurruna. Momentu oro aldatzen da, errekkako ura eta bizitza

Ihes egin gabe



EINER LARRABEITI
Psikologoa

bera bezala. Azken finean egia be horixe da eta.

Hala ere, eznaiz horretara ohituta egon, izan ere, matxismoaren normalizazioan biziraun duen gizarte-dinamika honi aurre egiteko arrazional hutsak izaten hasi ginen. Gogorak, emoziorik gabekoak, oldarkorak... Eta horrek urrundu egin nau nire egia jakitetik. Hori igarri egiten delako, eta ez da posible armadurak estaltzen badu. Oskol hori zabaltzeko galdetzen hasi naiz: Zer sentitzen ari naiz ni hemen eta orain? Hor betetzen da, benetan, "hutsune" sentsazioa nire egiaz.

Alaia
fruta-denda
Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua
Taller, 5
48170 Zamudio
94 485 05 85

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ZMA
taberna 3
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Hiru Bat dantza-taldeak 50. urteurrena ospatuko du urrian



Aurten 50 urte bete dira Hiru Bat dantza-taldea sortu zenetik eta, haren kideek adierazi dutenez, urteurrena urriaren 23an ospatuko dute. Zenbait ekitaldi antolatuta dituzte egun horretarako, hala nola dantzen agerraldia, herri bazkaria eta musika-ekitaldia.

Kalejira goizean egingo dute eta horretan parte hartuko dute dantzariak, Gazte Elai taldeko txistulariak, Bertokoko trikitilariak eta zanpantzarrek. Herriko futbol-zelaira abiatuko dira eta bertan dantzen agerraldia izango da gaur egungo dantzarien zein dantzari ohien eskutik. Eguerdian, herri bazkaria egongo da Agirre Lehendakariaren plazan ipiniko

den karpan eta, esan moduan, momentu horretan indarrean egongo diren osasun-eta segurtasun-neurriak eutsiko zaie. Ondoren, Tio Teronen Semeak taldearen ikuskizuna egongo da, eta egunari amaiera emateko, musika-ekitaldi bat.

Hiru Bat dantza taldeak deia egin die dantzariak eta herritarrei, leihotetan eta balkoietan puxikak, kartelak eta bestelako apaingarriak ipin ditzaten, agerian uzteko egun horretan zamudioztarrak ospakizunetan egongo direla. "Espero dugu ekitaldietan ahalik eta jende gehien batzea, eta egun polita izatea. Era berean, bizitzen ari garen egoerari alaitasun apur bat ere ekarri nahi diogu".

Loiuko kirolarientzako dirulaguntzak

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, herriko kirolariei diruz laguntzeko deialdia zabaldu da eta eskaera urriaren 13ra arte egin daiteke. Helburua da kirolari federatuei laguntzea Euskal Herritik kanpoko lehiaketek eragindako joan-etorriak eta dietak ordaintzen. Informazio gehiago eskuratzeko eta eskaera egiteko, www.loiu.eus webgunera jo daiteke. Eskaera udaletxean bertan ere egin daiteke.

Kontzertuak Baserri Antzokian

Kontzertu-saila antolatu da Txorierriko Baserri Antzokian urriaren 1ean, Lost Preachers eta Southbound taldeak izango dira, eta hilaren 9an, King Sapo. Bestalde, urriaren 23an La Topadora taldeak *Voy con todo* lana aurkeztuko du, eta, azkenik, Sonic Free Station taldea hilaren 30ean igoko da agertokira. Ateak 19:00etan zabalduko dira, eta kontzertuak 20:00etan hasi.



King Sapo taldea

GABONETAKO LOTERIA

aikor!
txorierriko auzokaria

10066

75.000 euro zuzenduko dira enpresek Loiuako langabetuak kontratatuzera

Josu Andoni Begoña Loiuako alkateak bere webgunearen bidez jakinarazi duenez, udalak 75.000 euro zuzenduko ditu enpresek herriko langabetuak kontratatu ditzaten. Loiuako, Txorierriko zein Bizkaiko enpresek eskuratu ahal dute dirulaguntza, eta kontratuak gutxienez sei hilekoak izan beharko dira, zehaztugabeak edo aldi baterakoak, eta jardunaldi osokoak. Dirulaguntza 2021eko irailaren 1etik abenduaren 1era bitartean egiten diren kontratuetarako da eta enpresek gehienez 4.000 euro jasoko dituzte kontratu bakoitzeko.

Kontratatutako pertsonak Loiuari erroldatuta izan behar dute kontratua egin baino sei hile lehenagotik. Enpresek abenduaren 1era arte aurkeztu ahal izango ditu eskaera udalaren egoitza elektronikoaren bidez edo udaletxean, astelehenerdik barikura eta 08:30etik 13:30era. Bestalde, Loiuako Udalak 10.000 euroko diru-partida zuzenduko du enplegarritasuna hobetzen duten ikastaroetara. Udalak 500 euroko dirulaguntza emango du ikastaro bakoitzeko, eta 50 euro, ikastaroari lotutako joan-etorriak ordaintzen laguntzeko. Eskabideak abenduaren 1era arte aurkeztu ahal izango dira.

Lezamako Txakolinaren Eguna bertan behera

Txakolinaren Egunaren 19. edizioa urriaren 3an ospatzekoa zen Lezaman, baina hango udalak jakinarazi duenez, "udalak eta ekoizleek erabaki dugu hura bertan behera uztea, COVID-19ari aurre egiteko ezarritako neurriak direla eta". Txakolinaren Eguna zuzenduta zegoen diru-partida herrian hainbat ekintza egiteko erabiliko da hemendik urte amaierara arte.

Lezamako Txakolinaren Eguna ekainean ospatu ohi da, baina udalak eta ekoizleek erabaki zuten aurtengo edizioa urrira atzeratzea; hala ere, datorren hilean ere ez da egingo. "Atzeratzeko erabakia hartu genuenean, espero genuen osasun-egoera hobeto egotea. Baina gaur egungo segurtasun-neurriak kontuan izanda,

aurtengo edizioa bertan behera uzteko erabakia hartu dugu. Izan ere, esandako neurriek debekatzen dituzte jende-pilaketak eta kalean kontsumitzea; eta hortaz, kalean txakolina dastatzea", adierazi du Jon Ander Aurrekoetxea alkateak.

Arduratsua izateko deia egin die Aurrekoetxeak herritarrei, eta itxaropentsu azaldu da datorren urteari begira. "Txakolinaren Eguna oso ekintza berezia da lezamar guztiontzat eta asko tristatzen gaitu hura ospatu ezin izateak. Hala ere, pandemian gaudela, osasun publikoa lehentasuntzat jo behar dugu. Espero dezagun 2022an normaltasun osoz gure txakolin apartez gozatu ahal izatea eta Txakolinaren Egunean Lezaman sortzen den giro ezin hobez".



AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1. behea
Zamudio
94 4520419

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelenerdik ostiralea arte:
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

tik tak

EGUNEKO MENUA
lehengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria 9€

T: 94 454 55 55

Bestorene 5. Behea
48160 DERIO

Aisialdirako gune berria Larrabetzun

Abuztuaren amaieratik aisialdia emateko gune berria dute larrabetzuarrek. Lekua Mirandako bihurgunean dago, Larrabetzuko Udalak karabanetarako atondu zuen gunean hain zuzen. Bost aparkalekuz gainera, guneak egoteko lekua du, herritarrek ere erabil dezaten. Hura leku garbia izatea nahi du udalak, hondakin gabekoa, eta hori dela-eta ez da bertan zakarrontzirik ipini. "Izan ere, herrian edo Goikolan, 300 bat metrora, hainbat edukiontzi daude hondakin-mota bakoitza uzteko. Azken lau hileetan, ehunka pertsonak eman dute gaua han autokarabanarekin eta eremua garbi egon da, hondakin gabekoa". Eremua atontzeko, 25.950 euro ipini dira.



TANTUZ TANTU, DAÑOBEITIAREN

OMENEZ.– Lezama bat egin zuen irailaren 10ean Juan Mari Dañobeitiari egindako omenaldiarekin. Familia frontoira atera zenean, txalo-zaparrada ederra eskaini zien publikoak. Omenaldia Lezamako pilota-eskolak eta Dañobeitiak irakatsitako pilotariek antolatu zuten. Pedro Mari Goikoetxea kazetaria aurkezle aritu zen eta bertsoa Xabier Euzkitzek kantatu zuen grabazio baten bidez. Juan Mari abuztuaren 17an hil zen, 77 urte zituela. Pilotari profesionala izan zen 1976tik 1987ra bitartean, eta erretiroa hartu zuenean, Lezamako pilota elkartearen ibili zen. Omenaldia binakako partida profesionalen jaialdian egin zen. Partida nagusian, Elezkanok eta Rezustak 22 eta 20 irabazi zieten Olaizolari eta Albisuri.

Hobekuntzak egingo dira Derioko udal-kiroldegian

Beitu udal-aldizkariaren iraileko alean jakinarazi dutenez, Derioko Udalak 210.682 euro zuzenduko ditu udal-kiroldegiko hainbat zerbitzuren instalazio termikoa hobetzera. Helburua da erabilitzaileei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea eta aurreikusi da lanek zortzi hilabete iraungo dutela. Udalak espero du lanak laster esleitu ahal izatea. Bestalde, igerilekuko eta gimnasioko estalkiak ere eraberrituko dira, ura iragazteko arazoak konpontze aldera. Udalak 93.421 euro ipiniko ditu horretarako eta lanek hile bi iraungo dute.

Kiroldegiaren instalazio termikoari dagokionez, kiroldegiko eta igerilekuko aldageletako klimatizagailu biak aldatuko dira, eta igerilekuan ere ipiniko dira klimatizagailu berriak. Azken horren harira, azaldu dute “ekipamendu berriari esker, kondentsazio-arazoak konponduko” direla eta “hondar-energia hobeto aprobetxatuko” dela. Bestalde, beroa berriro berreskuratzea ahalbidetzen duen airea berritzeko sistema ipiniko da muskulazio-gelan, eta ekipo berriak gimnasioan, hotzari eta beroari lotutako eskaerei erantzuna emateko.

Udal-aldizkarian jaso dituzte Esther Apraiz alkatearen hitzak: “Diseinu arreratu eta goi-errendimendua dituzten ekipoak dira eta horiei esker asko hobetuko da hainbat gunetako klima-

tizazioaren eraginkortasuna, eta energia aurreztu. Era berean, gaur egungo arauekin bat egingo dugu eta lortuko da airearen kalitatea egokia izatea. Hortaz, konfort-parametroak hobetu egingo dira, eta funtzionamendu-etenaldiak gutxitu”.

Beste aldetik, igerilekuko eta gimnasioko estalkiak ere konponduko ditu udalak. Gaur egungo estalkien gainean, xafla lakatu bat ipiniko da, eta kondentsazioa ekiditen duen isolamendua. Halaber, junturak errematatuko dira, eta urak behar bezala husteko lanak egin.



ERREKA ONDO ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familiaren bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 05

RADIO TAXI FEMADE Zure taxi, Teorissikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxiaraeropuertobilbao.com

DESCARGA APP-A

TAXI FEMADE

Partaide bila dabil Lezamako Batukada Taldea

Moreak taldeak duela ikasturte bi ipini zuen martxan Lezamako Batukada Taldea. "Oso tresna baliagarritzat jo genuen, ondo pasatzen genuen bitartean, bai emakumeen arteko sarea sortzeko, bai norbanakoaren eta taldeen ahalduzko-prozesua bultzatzeko". Gaur egun, zortzi emakume daude gogotsu "danborra jotzen jarraitzeko eta emakumeok hainbat arlotan jasaten dugun bazterketa kalean ikusarazteko". Partaide gehiago behar dituzte eta horregatik animatu nahi dituzte Txorierriko emakumeak egitasmoan parte hartzera.

Aurreko lerroetan esandako moduan, Lezamako Batukada Taldeko kideak duela urte bi hasi ziren entseatzeko, astero. "Geuk egindako tresnekin hasi ginen, harik eta beste talde batzuek utzitako musika-tresnak lortu genituen arte; aurten udalak erosi dizkigu tresnak. Durangoko Batukandra taldeko partaide bik asko lagundu digute eta haiek izan dira gure erreferente eta irakasle". Silvia Palombo argentinarren jarraitzaileak dira eta berak sortutako kantak jotzen eta kantatzen dituzte. Batukada taldearen partaideak eguaztetenetan batzen dira Uribarri Topalekuan, 18:30etik 20:00ak arte. Haiekin bat egiteko eta informazio gehiago eskuratzeko, moreaklezama@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da.

Zamudioko Azoka bertan behera

Zamudioko Azoka eta Txokolate, Gozo eta Artisautza Azoka azaroaren lehen asteburuan egin ohi dira, baina, Zamudioko Udalak jakinarazi duenez, hitzordu biak aurten ere bertan behera utziko ditu, "pilaketak saihesteko eta koronabirusaren agerraldiak ekiditeko". Izan ere, jendetza handia erakartzen duten ekitaldiak dira. Udalak "azken ahalegina" egiteko deia egin die herritarrei, eta espero du halako jarduerak berme guztiekin "lehenbailehen" antolatuko ahal izatea.

Zientzia eta Teknologia Parkearen gaineko erakusketa Derion



Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkeak 35 urte bete ditu eta urteurrenaren harira antolatu da "Ezagutu non sortzen den gure etorkizuna" argazki-erakusketa ibiltaria. Abanto-Zierbenan, Leioan eta Bilbon egon ondoren, erakusketa Deriora ailegatu da eta bertan, Aralar kalean hain zuzen ere, egongo da urriaren 12ra arte. Egitasmoaren helburua da herritarrei erakustea Parkeak Euskadiko ongizateari, oparotasunari eta jarduera ekonomikoari egin dion ekarpena.

Burdinazko, altzairuzko eta hormigoizko 10 monolitok osatzen dute erakusketa eta haietan Parkearen 20 argazki ipini dira ikusgai. Dagokion azalpenaz gainera, argazki bakoitzak QR kode bat du eta hori eskaneatuta parkearen hainbat gertaera ezagutzeko aukera dago. Argazkiak Pedro Luis Ajuriagerra argazkilariak egindakoak dira. Erakusketa inauguratu zuten Esther Apraiz Derioko alkateak eta Itziar Epalza Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko zuzendariak. Apraiz pozik azaldu zen erakusketa Derion, etxean, dagoelako eta azpimarratu zuen aukera ederra dela "derioztarrok Parkearen sareak Bizkaian egiten duen lana ezagutzeko eta Bizkaiko zein Euskadiko ekonomian duen garrantziaz jabetzeko". Bere esanetan, ibilbide arrakastatsua izan du Parkeak. "Egitasmo sendoa da, oso oinarri tinkoak dituena, eta jarraitu behar da oinarri horien gainean eraikitzen. Egitasmoaren alde egin du Derioko Udalak eta etorkizunean ere haren alde egingo



du". Horri lotuta Epalzak azpimarratu zuen Parkearen eta Derioren arteko harreman estua. Horrela, lehenengo urratsak Zamudion egin arren, parkea Deriora zabaldu zen geroago; Untzagara eta Geldora hain zuzen ere.

Bestalde, Epalzaren esanetan, Euskadiko Zientzia eta Teknologia Parkeak harro egoteko moduko errealitatea dira. "Talentu eta ezagutza-ekosistemak dira eta euskal industriaren internazionalizazioaren eta berrikuntzaren alde egiten dute. Erakusketak errealitate hori hurbildu nahi die herritarrei". Erakusketaren azken geldialdia Zamudio izango da. Hara datorren hilabetea ailegatuko da.

Gaur egun 270 enpresa baino gehiago daude Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean. Enpresa horiek guztira 3.300 milioi euro baino gehiago fakturatzen dute, eta 300 milioi euro baino gehiago ipintzen dute I+Gn; parkean 11.000 langile inguru daude. Gainera, Epalzak gogoratu zuenez, Faes Bizkaiko enpresa farmazeutikoak instalazio berria eraikiko du Parkean eta horrek 150 milioi euroko inbertsioa ekarriko du, eta 200 lanpostu berri.

Gabiriako gudari baten gorpuzkiak izan daitezkeenak hobitik atera dituzte Derion

Gorpuzkiak Jesus Izagirre Gabiriako gudariarenak izan daitezkeela uste dute haren senideek. Izagirre Amaiur batailoiko sarjentua zen eta 1937ko maiatzean hil zuten Bizkargi mendian. Familiak, Iñigo Santxo abokatuaren lanari esker, jakin izan du Izagirreraren hezurak Derioko hilerriko panteoi batean egon zitezkeela. Hezurak Aranzadi elkarteko hiru kidek, Paco Etxebarria haien artean, atera eta sailkatu zituzten, eta probak egin beharko dira egiaztatzeko Izagirrerrenak diren ala ez.

Antza denez, Izagirre eta berarekin batera hil zituzten beste gudari batzuk Derioko hilerrian lurperatu zituzten, eta

handik 15 urtera hezurtegi orokorrera bota. Baina, Santxoren ikerketa-lanari esker, familiak jakin izan du Izagirreraren hezurak lehenago sartu zirela Aspiuntza Bilboko familiaren panteoian. Azaldu den moduan, harremana zegoen familia bien artean eta Aspiuntza sendiak baimena eman du hilobia irekitzeko. Hura irailaren 14an zabaldu zen eta hilerrian batu ziren, besteak beste, Izagirrerren senideak, Iñigo Gaztelu Larrabetzuko alkatea eta Derioko ordezkariak. Aspiuntza familiako panteoian 19 lagun zeuden lurperatuta eta Aranzadiko kideek haietako hiruren gorpuzkiak hartu dituzte egiaztatzeko Izagirrerrenak ote diren.



a: Iñigo Gaztelu

WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Juan Luis Fernandez Gutierrez da irailako irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du sarizat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA GAZTEDI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

LIBURUDENDA PAPERDENDA

ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tif. / Faxo:
94 452 29 10

PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominación de origen

Goitioitza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

LEJARRENE JATETXEA
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Ekintzak Derion, sanmigelen harira

Jai-batzordeak jakinarazi duenez, aurten ere ezin izango dira Derion San Migel jaiak ohi moduan ospatu. Hala ere, jaietako zapia kaleratzeaz gainera, ekintza batzuk ere antolatut dituzte urriko lehen astebururako. Sarrera-txartela beharrezkoa izango da ekitaldi batzuetara sartu ahal izateko, eta erreserbak irailaren 23tik aurrera egin ahal izango dira Kultur Birikan edo udal-webgunean.

Urriak 1, barikua

–18:00 Pan Con Chile taldea (boleroak eta rantxerak), eskolan (sarrera-txartela).

–19:00 Kide berriei ongi etorria, Mikel Deuna plazan (edukiera mugatua).

–20:00 Txipirones txaranga.

–20:00 Taloa txorizoarekin, Sollube kalean.

Urriak 2, zapatua

–12:00 Kantu Kolore umeentzako ikuskizuna, eskolan (sarrera-txartela).

–18:00 Nerea Garmendiaren bakarriketa, eskolan (sarrera-txartela).

–20:00 Matraka elektrotxaranga.

Urriak 3, domeka

–18:00 Los Chimberos bilbainadataldea, eskolan (sarrera-txartela).

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren azken finalaurrekoa Larrabetzun egingo da

Bi larrabetzuarrek, Etxahun Lekuek eta Malen Amenabarrek, hartuko dute parte Bizkaiko Bertsolari Txapelketan aurten. Eta beste larrabetzuar bat, Leire Etxebarria, epaile arituko da. Txapelketa urriaren 3an hasiko da Durangon, eta finala Bilbon jokatu da abenduaren 18an. Tartean, hamar saio egingo dira eta azken finalaurrekoa Larrabetzun antolatuta abenduaren 4rako. Han Eneko Abasolo Txabarri 'Abarkas'ek (Iurreta), Jone Uria Albizurik (Getxo) eta Nerea Ibarzabal Salegik (Markina-Xemein) kantatuko dute, baita Ortuellako irabazleak eta kanporaketetako lehenengoak eta laugarrenak ere.

Iaz, pandemia zela eta, ez zen txapelketarik egon. Aurten hiru fasetan banatu da: kanporaketak, finalaurrekoak eta finala. Lehenengoetan 36 bertsolarik abestuko dute. Horietako hamar eta 2018ko zortzi finalistak (guztira, 18 bertsolari) sartuko dira lehiari finalerdietako hiru saioetan. Finala zortzik jokatu dute: finalerdietako hiru irabazleek eta puntu gehien lortzen dituzten beste bostek.



Sarrerak era bitan erosteko aukera dago: batetik, Internet bidez, www.bertsosarrerak.eus webgunean; bestetik, aretoetako txarteldegian, sarrerak aurretiaz agortzen ez badira. Txarteldegia 16:00etan zabalduko da; eta finalean, 15:00etan. Aforo murrizketak direla eta, Bertsosale Elkartek sarrerak aurretiaz erostea gomendatu du. Antolatzaileen esanetan, aurtengo txapelketak "bertso plaza berrakibatzea" du helburu. Gainera, "betiko helburuak izaten jarraitzen du: bertsogintzaren oinarria finkatu eta garatzea, hau da, Bizkaiko bertsolaritza azalratzea, Bertsosale Elkartearen lana jendarteratzea...".

Ondarearen Europako Jardunaldiak

Aurten, "Guztion ondarea, denok parte" lelopean, Ondarearen Europako Jardunaldiek inklusioa izango dute ardatz nagusiztat. Lezamako Udalak bat egin du egitasmoarekin, eta umeentzako ibilaldia antolatu du urriaren 10erako. Ekintzaren bidez, herriko ondarea hurbilduko diete lezamar gaztetxoei. Zortzi urtetik gorako umeentzako bisita izango da eta bertan lotuko dituzte natura-balioak, historikoak

eta artistikoak. Horretarako, herriko ibilbide bitaz baliatuko dira: Goitioltza eta Dorrea. "Ziur gaude kontatzen ez diren istorioak ahaztu egiten direla eta erabiltzen ez diren bideak galdu egiten direla. Lezaman oraindik asko dago kontatzeko, aurretik izan genituen lezamarrek egindako bideari esker", idatzi dute antolatzaileek Aitu udalaldizkarian. Izena emateko: 944 556 126 eta liburutegia@lezama.org.

Bestalde, Bizkaiko Elizaren Historia Artxiiboak erakusketa eta bisita gidatua antolatu ditu urriaren 19rako. Ekintzak Derioko Seminarioko egoitzan egingo dira euskaraz, gaztelaniaz eta zeinu-hizkuntzaz. Izena emateko, 944 062 490 telefonozenbakira deitu behar da. Zenbait ekintza pastoralen bidez sortutako inklusiorako dokumentuak ezagutzeko aukera izango dute parte-hartzaileek. Gainera, agerian utziko da hizkuntzak eta hedabideek ez dituztela beti gizatalde guztiak kontuan hartu.

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B **634 410 470**
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

LEIRE BEGOÑA

LEIRE BEGOÑA ILEAPAINDEGIA (DERIO)

Ileapaindegiaren mugimendua ez da pandemia hasi baino lehen izaten zenaren modukoa; hala ere, negozioa ondo doa. Nabarmentzekoa da bezero batzuen ohitura-aldaketa. "Adineko batzuek hitzorduak bakandu egin dituzte; esaterako, lehen 20 egunik behin etortzen ziren ilea tindatzera, eta orain denbora-tarte luzeagoa itxaroten dute. Gazteek, berriz, lehen baino gehiago apaintzen dituzte beren burua eta aurpegia. Beharbada, telelanak izan du horretan eragina, izan ere, onlineko bilerak dituzte eta beren burua txukun ikusi nahi dute, ondo sentitu". Euren kasuan, ia-ia ezkontza guztiak bertan behera gelditu dira. "Atzeratu egin dituzte: batzuek beldurratik eta beste batzuek gonbidatuen kopurua murriztu behar zituztelako. Jaunartzeak, bestalde, izan ditugu, baina gonbidatu gutxiago egon dira. Orain pentsa liteke ezkontzak apurka-apurka etorriko direla: batzuk ditugu datozen hiletarako eta datorren urterako". Begoña baikorra da. "Pozik nago eta uste dut aurrera egingo dugula".



GARBIÑE LARRAURI LANDA

TXORIERRIKO UDAL-EUSKALTEGIAREN
ZUZENDARIA (DERIO)

Beste edozein ikastetxek bezala, ezinbestekoa izan dute pandemiak eragindako egoerara moldatzea: eskola etxetik online emanez, hasieran; ikasgelak osasun- eta segurtasun-arauetara egokituz, aurreko ikasturtean. Gainera, leku-falta dela eta, Larrabari baserrian atondu behar izan dira ikasgelak haien zat. Hasierako zalantzak eta beldurra alde batera utzita, ikasleen erantzun ona azpimarratu du, eta irakasleek momentu orotan egindako ahalegina. "Aurten hobeto ibiltzea espero dugu. Matrikulazioei dagokienez, mugimendua ikusi da eta uste dugu iazko ikasleen kopuru berbera edo apur bat handiagoa izango dugula: 200 ikasle inguru". Bere esanetan, ikasleek aurrez aurreko eskola-saioak nahiago izan zituzten iaz, eta ohiko ikasleek aurten ere aukera hori nahiago dute; hala ere, berriek gehienbat onlineko saioak aukeratu dituzte. Zorionez, ikasle bakan batzuk konfinatuta egon arren, iaz ez zuten ikasgelarik itxi behar izan; aurten ere gauzak ondo ateratzea espero du.



"Nire txapela emakumeon lorpen kolektiboa ere bada"

ONINTZA ENBEITA | bertsolaria

Askotan antolatzen dira bertso-saioak Txorierrin, baina Bizkaiko txapelak ez da beti gurera kantatzera etortzen. Onintza Enbeitak 2019an lortu zuen txapela, eta hori irabazten duen lehenengo emakumea izan da. Abuztuan Larrabetzun ibili zen bertsoan. Gainera, beste lotura bat ere badu bailarekin: iaz, Labayru ikastegian hasi zen lanean, Derion.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Labayrun zaude lanean. Zer egiten duzu bertan?

Aspalditik lan finko barik ibili naiz, eta pandemian hemen lan egiteko aukera sortu zitzaidan eta pozik nago. Apur bat galduta, dena berria delako, baina lankideei esker, martxa hartzen nabil. Hiztegi gintza sailean nago, hau da, da-goena eguneratu, adibide berriak sortu eta Euskaltzaindiak onartzen dituen arau eta hitz berriak hiztegiara sartzen ditugu.

Kazetari lanak ere egiten dituzu gaur egun...

Bai, izatez, kazetaria naizelako. *Berrian*, *Euskadi Irratian* eta *Aizu* aldizkarian idazten ditut kolaborazioak. Nik bertsolari definitzen dut nire burua, baina beti egin dut beste lanen bat: batetik, herri honetan bertsolaritzaren bidez bakarrik hipoteka ordaintzea erraza ez delako; eta bestetik, beste zerbaitek izateak askatasun ekonomikoa ematen dizulako. Idaztea asko gustatzen zait, baina ez naiz inoiz liburu bat idaztera ausartu. Beraz, kazetaritza aitzakia da egunero idazteko.

Enbeitatarra izatea eta bertsolaria ez izatea ere...

Bai. Enbeita abizenak pisua du. Nerean guztiok "hil" behar dugu aita, eta nik aita, aitite eta senide guztiak "hil" behar izan nituen (kar, kar). Nahitanahiez egin behar izan nuen, bertsolaria izateko.

"Larrabetzu plaza ederra da: txikia da, baina herri moduan egiten dituzte gauzak"

Gaztetan gainkarga izan zen Enbeitatarra izatea; gaur egun, aldiz, ez dut hori sentitu; guztiz kontrakoa, ohorea da, familia maite dut. Eta gainera, nire estilo propioa garatu dut. Enbeitatarra izateaz harro nago, familiak bertsolaritzaren alde lan ikaragarria egin duelako.

Aititek Bizkaiko bertsolaritza lehenengo txapelketa irabazi zuen 1958an, eta zeu izan zinen txapelketa hori irabazten duen lehenengo emakumea. Biribila itxi da?

Txapelari esker, prozesu profesional zein pertsonal bat itxi nituen: batetik, 20 urte eman ditudalako txapelketetan eta azkenean, Bizkaikoa lortu dudalako; eta bestetik, aitite erreferentea izan zelako. Harreman ona nuen berarekin, gurekin bizi zen, baina ni jaio nintzenean berak negar egin zuen, ni mutila ez nintzelako (ahizpa nagusi bi ditut).

Zer esangura ematen diozu lehenengo emakume irabazlea izateari?

Lorpen pertsonala da, noski, nik irabazi dudalako. Hala ere, emakumeon



lorpen kolektiboa ere bada. 1986an Kristina Mardaras izan zen txapelketa batean parte hartu zuen lehenengo emakumea. Bera aurkeztu izan ez balitz, ez ginatkeen gauden lekuan egongo. Eta bere atzetik beste guztiok etorri gara: Arantza Zuloidi, Ainhoa Munitxa, Maialen Lujanbio, Iratxe Ibarra... Lan egin dugu, sufritu dugu, baina emaitzak lortu ditugu. Gaur egun neska bertsolarien kuadrilla bat dugu, inolako lotsarik gabe bertsoan aritzen dena. Hori lortzeko, bidea egin dugu, orain hasi da gure festa eta nik ez dut oraindik etxera joan nahi, festaz gozatu nahi dut.





Diputatua

Onintza Enbeita Maguregi (Muxika, 1979) Ezker Abertzalearen diputatua izan zen Madrilgo Legebiltzarrean, 2012tik 2019ra bitartean. Aurretik, herriko zinegotzia ere izan zen. "Alderdiak proposatu ninduen Madrilerako joatea eta bertan oso harrিতa gelditu nintzen, eztabaidatzeko maila eskasarengatik. Agian horretan datza politika, baina nik ezin dut kafesne bat hartu patxadaz bizitza izorratzen didan inorekin, esaterako lan-erreforma onartu dutenekin edo abortatzeko eskubidea ukatu nahi dutenekin. Ez nintzen Madrilerako joan lagunak egitera", esan du Enbeita.

Bertsolariak ez du politikara itzultzeko asmorik. "Joko politikoan ez naiz eroso sentitzen; era berean, dena ez dut onartzen, pentsatzen dudana esaten dut". Dena dela, "lasai" egiten du lo, bere esanetan, "lan polita" egin zutelako. "Batez ere kontuan hartuta baliabide gutxi genuela eta komunikabideek boikot aktiboa egiten zigutela. Ez genien gure printzipioei uko egin".

Bertsolari hasi zinenean, ez zen batere ohikoa emakumezkoa izatea. Hain gogorra izan da?

Momentu txarrak egon dira, baina onak ere bai. Matxismoa egon da bertsolaritzan, bai, eta hori neska gazteei kontatu behar diet; bestela, tranpa egingo diet. Emakumezkoa izateagatik, inork ez dit inoiz esan bertsoak kantatu ezin nituenik. Hala ere, sentitu dut ongi etorria ez nintzela edo desberdina nintzela. Esate baterako, bertso batean hilerokoa aipatzen badut, gai unibertsala ez dela entzungo dut. Hau da, populazioaren erdiari bizitzaren heren

batean hilerokoa gertatzen zaion gauza bat ez da unibertsala? Eta futbola? Eta ehiza? Gure gaiek molestatu egin dute. Gaitzespena ez da nabaria izan, gozoa baizik. Gizonezkoak epaitzen ez dituzten moduan epaitu gaituzte.

Lehian sartzen jarraituko duzu bertsolaritza txapelketetan?

Bai, izena emanda daukat Bizkaikoan. Txapela irabazi nuenean, pentsatu nuen azken txapelketa izango zela, baina gero hausnarketa sakonagoa egin nuen: polita izango litzateke txapela agertokian galtzea, eta horregatik erabaki dut berriro aurkeztea.

Beste saio batzuetan ere hartzen duzu parte. Horietako bat Larrabetzun izan zen, abuztuan. Zelan?

Oso ondo. Saioa frontoian egin genuen eta jende pila etorri zen. Larrabetzu plaza ederra da; Txorierriko beste herriak ere bai, baina bereziki, Larrabetzu. Txikia da, baina herri moduan egiten dituzte gauzak, hau da, bertso-saioa egiten badute, bertsozaleak ez diren batzuk ere etorriko dira; eta Gazte Eguna antolatzen badute, hain gazteak ez diren batzuek egingo dute bat horrekin. Eta hori polita da eta ez da askotan beste herri batzuetan ikusten.

elekma
LARRAZTEAREN BAT DUTEN E-TEKTRONIA ELEKTRIKO BEHARRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXUKAK.
Izaherengo-motak • Pheziorik onenak.
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Teléfono etorbidea: 253.N. 48180 Iruia
T: 944 599 252
www.elekma.es

**ZURREGOTTI
JATETXEA**
Laurtolea etorbidea, 27
48180 Lodu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantleaurregotti.com

**ELORRIETA
INSTALACIONES**
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

t: Itxaso Marina Ondarroat

Derioztarrak www.bideojokoak.info baliabide digitala jorratu du Gradu Amaierarako Lanerako, eta Larrabetzuko eskolako web-gunean txertatu da. Tresnak bideo-jokoaren gaineko informazio lagungarria eskaintzen du, gurasoek eta irakasleek jakin dezaten umeak zertan ibiltzen diren eta arriskuak zeintzuk diren. Baliabidea ikasle larrabetzuarren errealitatera egokituta egin du, baina beste edozein ikastetxeren beharrianetara moldatu daiteke. Gainera, informazioa eskuragarri dago edozein pertsonarentzat ere bai.


“Egia esan, sinetsita nengoen Lehen Hezkuntzako ikasleek Internet, teknologia eta gailu mugikorrek gehienbat gizarte-sareetan ibiltzeko erabiltzen zituztela; hala ere, gaian sakondu, eta konturatu nintzen ez dela horrela: batez ere bideo-jokoetan ibiltzeko erabiltzen dituzte. Beraz, pentsatu nuen baliabide digital bat sortu ahal nuela gurasoek eta irakasleek jakiteko umeak zertan aritzen diren eta arriskuak zeintzuk izan daitezkeen”, azaldu digu.

Baliabidea Gradu Amaierarako Lanaren harira jorratu du eta Larrabetzuko eskolako ikasleen zaletasunak izan ditu horretarako abiapuntu. “Hauek dira hango ikasleen bideo-joko kutunenak: Brawl Stars, Fortnite, Among Us, Fifa, Roblox eta Minecraft. Bideo-joko bakoitzak bere atala du baliabidean, eta bertan informazio interesgarria topatuko dugu berari buruz; esaterako, zein adinetako umeentzat den egokia, nolakoa den eta bere helburua zein den. Bideo-jokoaren edukiak ere jaso dira –indarkeria, fantasia...–, eta erosketak egiteko edo beste pertsona batzuekin online jolasteko aukerarik dagoen. Jokoaren nondik norakoak batu ditut minutu bateko bideo batean, eta bideo-jokoaren trailer ofiziala ere ipini dut”. Bestelako informazio gehigarria ere kontsultatu daiteke baliabidean. “Adibidez, zein gailutan jokatu daitekeen, mendekotasunik sor dezakeen, aukera bat edo bestea desak-

“Lehen Hezkuntzako ikasleek batez ere bideo-jokoetan ibiltzeko erabiltzen dituzte Internet eta teknologia”

“Arriskua da umeek ez jakin norekin hitz egiten a

UNAI ARRUGAETA AMADOZ | irakaslea



Egilea

Hogeita hiru urte ditu eta irakasle-ikasketak amaitu berri ditu. “Informatika eta teknologia asko gustatzen zaizkit eta horregatik erabaki nuen ingeniari-tza informatikoa egitea batxilergoa amaitu eta gero. Baina ikasturte bat baino ez nuen egin, konturatu nintzelako ez zela niretzat”. Irakastea eta umeekin egotea ere gustuko du, eta Leioako fakultatean

itea benetan ri diren”

tibatzea gomendagarria den, beste jokolari batzuekin txatean aritu daitekeen, bideo-jokoaren arriskuak zeintzuk diren eta segurtasun-aholku batzuk”.

Derioztarraren esanetan, objektibotasunez aztertu du bideo-joko bakoitza, gurasoek jakiteko haien atzean zer dagoen eta informazioa baliagarri izan dezaten erabakiak hartzeko orduan. “Tresna inportantea da. Izan ere, eta ikerketek diotenez, pandemiaren geroztik Lehen Hezkuntzako ikasleek gero eta gazteagoak direla eskuratzen dute lehen mugikorra; 9-11 urte dituztela. Hortaz, Internet dute eskura, wifi-konexioa, datu mugikorrak... Gehienek bideo-jokoak deskargatzen dituzte eta telefonoan bertan ibiltzen dira, baina gurasoek ez dakite zein bideo-jokotan aritzen diren, edo bere edukiak eta arriskuak zeintzuk diren”. Bere ustez, arriskurik handiena da online jolasteak umeek edozein pertsonarekin harremanetan jartzea ekarri daitekeela. “Gaur egungo bideo-joko guztiek «behartzen» dute online jokatzera eta, ondorioz, munduko edozein bazterretako lagunekin batera aritu daiteke. Gainera, bideo-joko batzuek beste jokalariekin harremanetan egoteko aukera ematen dute, txat baten bidez edo entzungailuak-eta erabilita zuzenean hitz eginez. Arriskua da umeek ez jakitea benetan norekin hitz egiten ari diren; hau da, beste aldean dagoena izatea haurra- ren itxurak egiten dituen heldu bat”.

Zeri uko egin

Bideo-jokoek sortu dezaketen mende- kotasuna da beste arrisku bat, gaztearen

eman zuen izena Lehen Hezkuntzako iras- kase bihurtzeko. “Gainera, uste dut Hez- kuntzari, orokorrean, bestela heldu behar zaiola: ikasgelak beste modu batean atonduz, IKTak erabiliz, ikasleei modu di- namikoan irakatsiz, proiektuen bidez, tal- de-lanen bitartez... Ikasleek ikusi behar dute ikasitakoak zertarako balio duen: guk zatiketak-eta irakatsi ahal dizkiegu, baina egunerokotasunean erabilgarria dela ikusi behar dute”. Laster oposizioak prestatzen hasteko asmoa du.

“Ikasleek gero eta gazteagoak direla eskuratzen dute lehen mugikorra; 9-11 urte dituztela”

ustez. “Nire galdera da Lehen Hezkuntzako ikasleek egunean bideo-jokoetan zenbat ordu ematen duten, edo mugikorrarekin, eta uko zeri egiten dioten. Gaztetxoak gi- nela, futbol-zelaira joaten ginen futbole- an egiten; orain atean jezarrita ikusten dituzu gaztetxoak, bata bestearen ondoan eta mugikorrari begira: uko egiten diote lagun-ekin jolasteari, hitz egiteari, egoteari...”. Bideo-jokoak gustatzen zaizkion arren, badira urte batzuk albo batera utzi dituela. “Noizbehinka ibiltzen naiz jolasean lagun-ekin, Fifan-edo”. Bideo-jokoetan ibiltzeko era asko aldatu da bera txikia zenetik hona, eta online aritzeko aukerak ekarri du aldaketa hori, hain zuzen ere. “Guk Mario Brosean aritzen ginen, Sonycean... Beharbada,

Baliabidea osatuz joango da eta bertan bideo-joko gehiagoren ezaugarriak batuko ditu

arratsalderen bat eman ahal genuen lagun baten etxean bideo-jokoetan, nobedadea zelako, baina hurrengo egunean kalera ateratzen ginen lagunekin egotera eta jo- lastera”.

Edonor sartu daiteke www.bideo-jokoak.info webgunean, eta hango in- formazioaz baliatu. Gainera, gaztearen as- moa da denboraren poderioz baliabidea osatuz joatea eta bertan bideo-joko ge- hiagoren ezaugarriak batzea. Era berean, beste ikastetxe batek interesa azalduz gero, baliabidea haren beharrezanetara ere egokitzeko prest azaldu da Arrugaeta. Hauek dira berarekin harremanetan ipin- tzeko moduak: @UnaiArrugaeta (Twitter) eta unaiarrugaeta@gmail.com.



POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larriate Heziketa eta Bigarren Hezikuntzako Ikastetxea

Uztzagile Basile Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

BATXILERGOA
• Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
• Produktzio Programatzeko Goi-mailako Teknikari
• Automatizazioa eta Robotika Industrialko Goi-mailako Teknikari
• Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
• Salmenten eta Merkataritza Esperuen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
• Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

IKASLEEN ERKIDETZA **ER** **AKOBE**

40 urte, milaka txori

Martxan da Txorierriko “Euskararen Lagunen Sarea”

Merkataritzan euskara bultzatzeko egitasmoa abiarazi zuen Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak urte hasieran, eta ehun saltoki baino gehiago biltzen dituen sarea osatu da. Izena eman duten establezimenduak mapa interaktibo batean kontsultatu ahalko dira.

Mankomunitateak “Euskararen Laguna” egitasmoa jarri zuen martxan urtarrilean, Txorierriko dendetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko asmoz. Era horretan, “Euskararen Lagun” egiten diren establezimenduei doako hainbat zerbitzu eta promozio kanpaina eskainiko zaizkie, besteak beste, hizkuntza aholkularitza, itzulpen zerbitzua, paperezko poltsen banaketa, maketazio zerbitzua...

Azken hilabeteetan kanpainari buruzko informazioa zabaltzeko bisitak egin ditu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, eta orotara 111 saltokik eman dute izena sarean, mankomunitatea osatzen duten sei herrietan: 4 Loiu, 6 Lezaman, 9 Larrabatzun, 13 Zamudion, 14 Sondikan eta 65 Derion. Nabarmentzekoa da Derion eta Zamudion, bertako merkatariek elkarrekin (DERIOCOM eta Bizi Zamudio) elkarre moduan sarean sartu direla eta beraiekin batera elkarre osatzen duten saltoki guztiak.

Kanpaina honek zubi lana egiten du erosketak euskaraz egin nahi dituzten bezeroen eta aukera hori eskaintzen duten dendek artean. Izena eman duten establezimenduek lehen hitza euskaraz egiteko eta dendako hizkuntza paisaia euskaraz jartzeko konpromisoa hartzen dute. Horretaz gain, euskarazko arreta eskainiko diete bezeroei, betiere ahal duten neurrian.

Euskararen laguna

“Euskararen Lagunak” diren saltokiak erraz identifikatze aldera, kanpainaren logoa izango dute erakuslehoan edo denda barruko leku ikusgarriren batean. Ikur horrek euskaraz hitz egiteko gonbidapena luzatuko die bezeroei. Bestalde, Txorierriko Mankomunitateak kartel eredu bereizgarriak sortu ditu kanpainarako,





saltokiek euren ordutegiak edo bestelako mezuak jar ditzaten. Euskarri horien bidez sareko kide diren guztietan irudi bateratu bat lortuko da.

Sarearen parte diren dendek Mankomunitateak eskaintzen dituen doako zerbitzuak erabili ahalko dituzte euskararekiko duten aldeko jarrera erakusteko eta euskaraz egin nahi duten bezeroei trabak kentzeko. Bezeroek, horrela, dendariak egindako ahalegina baloratuko dute euren negozioetan euskarak lekua izan dezan, negozioaren irudia eta errentagarritasuna hobetuz.

Mapa interaktiboa

Ahozko harremanetan euskara erabiltzeko aukerak areagotzeaz gain, kanpaina honen beste ardatzetako bat gertuko merkataritza sustatzea da. Horretarako, sarean izena eman duten establezimenduen datuak biltzen dituen mapa interaktibo bat osatu da.

Mapa hori Mankomunitateko www.txorierrri.eus web orrian egongo da kontsultagai edo QR kodea eskaneatuz. Bertan euskararen lagun guztiak herrira sailkatuta aurki daitezke. Horretaz gain, herri bakoitzaren web gunean ere sarearen informazioa eskuratu ahal izango da. Tresna honen bidez herritarrek erraz aurkituko dituzte Euskararen Lagunak, eta euskarazko kontsumoa erraztuko zaie.

Promoio kanpainak

Mankomunitateak, era berean, Euskararen Lagunen sarearen zabalkundea egiteko, bertako kide diren saltokien promoio-kanpainak egingo ditu. Udazkenean izango da lehenengoa: izena eman duten establezimenduei kanpainaren ikurra eta leloa dituzten paperezko 15.000 poltsa banatuko zaizkie.

Euskara Zerbitzuak, herritarrak erosketak euskaraz egitera animatu nahi ditu, askotan uste baino errazagoa izaten baita. Bezeroen eta saltokien arteko konfiantza zein gertutasuna suspertzeko baliabidea ere bada kanpaina hau. Horixe bera da, hain zuzen, kanpainaren leloak adierazten duena: "Gertuko erosketak, gertuko hizkuntzan. Txorierrin baino hobeto, non?"

Informazio gehiagorako:
merkataritza@txorierrri.eus
Tel: 688 665 112
(Martin Txintxurreta)

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Deialdia behin Dirulaguntzen Base Nazionalen jasota, eskabideak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan hasiko da, eta 2021eko azaroaren 2ra artekoa izango da.

Eskabideak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko (www.txorierrri.eus) webgunean deskargatu daitezke edo Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudioko udaletxeetan jaso daitezke, eta, gero, Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan edo udaletxeetan bertan aurkeztu beharko dira.



Beste basogintza-eredu bati begira

lazko geldialdiaren ostean, Gurpide Larrabetzuko baserritarren eta kontsumitzaileen elkarteak urriaren 17rako antolatu du Bertoko Produktuen Azoka. Hortaz, Larrabetzuko, Bizkaiko eta Nafarroako ekoizleak berriro batuko dira herriko plazan, eta herritarrek zein bisitariak Euskal Herrian ekoiztutako produktuak eskuratu ahalko dituzte, hala nola ortuariak, esnekiak, pasta, marmelada, sendabelarrak eta artisau-lanak. Gainera, Gurpidek gai bat jorratu ohi du azokaren harira eta aurten basogintza-eredua aukeratu dute horretarako.

t. Itxaso Marina

“Duela urtebete inguru, hausnarketa egin eta ondorioztat atera genuen gaur egungoaren moduko krisialdiak etortzen direnean oso garrantzitsua dela elikagaien hornidura hurbil edukitzea, eta herri eta eskualde autosufizientea izatea”, azaldu digute. “Hainbat gai jorratu genituen ideia horri lotuta eta haietako bat izan zen Larrabetzun ia ez dagoela lur publikorik, eta autosufizientzia nahi bada, lur publikoen jabetza estrategikoa dela epe ertainera eta luzera. Herriko alderdi politikoekin harremanetan ipini ginen eta azkenean onartu zen Udalak diru-partida bat bideratzea lurra erosteko: 15.000 euro. Gainera, alkateak, zinegotzi batzuk eta Gurpideko kide batzuk lantalde bat osatu genuen, eta erabaki genuen lur horiek basogintzarako erabiliko zirela,

“Autosufizientzia nahi bada, lur publikoen jabetza estrategikoa da epe ertainera eta luzera”

eta baso-lur horiek abeltzaintzarako ere erabilgarriak izan zitezkeela”.

Elkarteak beste basogintza-eredu bat bultzatu nahi du herrian eta, gaiari heltzeko, eztabaida zabaldu. Hala, abuztuan eta irailean, lurren jabeek egitasmoa ezagutzera udaletxera hurbiltzeko aukera izan dute, eta, bestalde, urriaren 14an hitzaldia egingo da 19:00etan, Angulerin. Hitzaldi horretan parte hartuko dute Tantai Baso Jabe Kooperatibako kideek eta Errez kooperatibako ordezkariak. “Ideia

“Etekinak ez du bakarrik ekonomikoa izan behar; ekologikoa ere izan behar du, naturari, aisialdiari... begirakoa”

da lurren jabeak egitasmoa erakartzea, eta hitzaldiak interesa pizten badu, tailer bi egingo dira haiekin, beste basogintza-eredu bat lantzeko”.

Esan digutenez, ez dago beste basogintza-eredu bakar bat, hainbat eredu baizik. Gakoa da soilik etekin ekonomiko bila dabilen eredutik aldentzea eta dibertsifikazioaren alde egitea. “Etekin atera daiteke basotik, baina etekin horrek ez du bakarrik ekonomikoa izan behar; ekologikoa ere izan behar du, naturari,



a: Idoia Andres

Sei ekoizleak eta bost kontsumitzailek osatzen dute Gurpide elkarteak. Hala ere, horren oinarri soziala askoz zabalagoa da, herritar askok elkartearen helburuekin eta irizpideekin bat egiten dute eta. Haien artean daude konposta egiten duten familiak, merkatu txikiko bezeroak eta astero baserritarrei produktuen otzara erosten dietenak. “Horiek guztiak gonbidatu genituen baserri bat bisitatzera eta Gurpide komunitatea osatzeko proposamena egin genien, haiek ere modu batean edo bestean ekarpena egin dezaketela pentsatzen dugulako”.

Elkarteak sare sozial hori, komunitatea, lehenengo sektorearen inguruan aktibatu eta trinkotu nahi du. Auzolanaz baliatuko dira helburua lortze aldera.

Komunitatea

“Herrian sortu daitezkeenez gainera, auzolan bitara deitzeko asmoa dugu. “Alde batetik, Galdakaoko Elkarlaguntza Sarea egitasmoa lagunek lurra dituzte Larrabetzuko baserri batean, eta astean bitan auzolanean ibiltzen dira bertan; hara hurbildu nahi dugu, auzolanean parte hartzeko eta proiektua apur bat gehiago ezagutzeko. Bestalde, udazkenean Arratiara joan nahi dugu, Basoa proiektua ezagutzera”. Lehen sektorearen alde egiteaz gainera, autosufizientzia ere bada elkartearen helburuetariko bat. “Eta elkarteak bagara, elkarri lagundu ahal diogu hainbat modutan”.

paisaiari, aisialdiari... begirakoa. Basoak beste modu batean kudeatzen ikasi beharra dago eta, monolaborantzaren orde, dibertsifikatu: esaterako, basafruituak ipini, ortua, animaliak... Lurra eta ingurua pobretu barik ikasi behar dugu basoa ustiatzen; izan ere, pinua, adibidez, ez da berez kaltegarria: kaltegarria dena da bakarrik pinuak landatzea". Haien hitzetan, monolaborantzak dakartzan mugak eta kalteak lehen baino askoz nabarmenagoak dira gaur egun. "Pinuen gaixotasuna etorri da, eta dibertsifikazioaren bitartez lortu daiteke basogintza-eredu orekatuagoa eta zainduagoa. Horretarako momentu egokia dela uste dugu, zeren debatea Euskal Herriko hainbat tokitan dago, baita agenda politikoan eta mediatikoan ere".

Gurpidetako kideen ustetan, gainera, ezinbestekoa da natura-guneak eta mendi-magalak babestea. "Monolaborantza, pinua, kentzen denean, matarrasa egiten da eta makinek dena kentzen dute; lurra biluzik uzten dute, ura xurgatzeko gaitasunik gabe... animaliak ere ezin dira hor bizi... Hori ere aldatu beharra dago, eta inguru naturala zaindu, muturreko klima-aldaketak ez etortzeko. Munduko klima ez ezik gertuko klima ere aldatuz doa eta: paseoan gabiltzala, esate baterako, tenperatura-aldaketa igartzen dugu, basoa zein den gora-behera. Ondo jagotako baso batek ura kudeatzen eta mantentzen du, eta ekosistema orekatuak gura baditugu, basoak bere funtzioa bete behar du".

Esanak esan, lur publikoak behar-beharrezkotzat jotzen dituzte beste basogintza-eredu baterantz urratsak egiteko. "Espero dugu hau epe luzeko egitasmoa izatea eta lurra erosteko aukera urtero egotea. Lurra erosituta, lur publiko horien kudeaketari buruzko eztabaida ere zabaldu beharko da, hainbat aukera daude eta".

Basogintza-eredua Bertoko Produktuen Azokari lotuta izango dute aurten eztabaidagai. Azoka 22. aldiz egingo dute eta, aurrekoak bezala, arrakastatsua izatea espero dute. "Pandemia dela eta, azoketatik bizi den jende asko ezin izan da plazan egon eta galera handia izan du. Egoera hobetuz doala ematen du, eta plazara ere berriro ateratzeko garaia da. Era berean, bizi dugun egoerak zer pentsatua eman izana ere espero dugu: jagon ditzaugun gure baserriak eta inguruak".



a: Iskander Barrena



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkidenk: 144

*Pentsu
naturalak*

**Hertz-klinika
IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hertz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. edk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Unibe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

L. LEIZADIA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OAKLAND
ENGLISH

“Baserriko giroan eroso nago”

GABRIEL ETXEBARRIA | euskaltzalea

Sarritan ikusi dogu Txorierritik zaldi gainean eta behizain-txanoa jantzita. Gabriel Etxebarria zamudioztarraren (1948) itxurea bitxia da, baita kontetan dituan istorioak be. Atsegina da entzutea. Etxebarria gizon hurbila da, herrikoia, eta oso euskaltzalea, euskaltzale militantea. Lagatzu euskera alkarteko sortzaileetako bat izan zan eta azken urteotan Baserri Antzokiko proiektuan be sartu da.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Zamudioztar peto-pettoa zara. Beti herrian bizi izan zara?

Familia Zamudiokoa da eta beti bizi izan naz hemen, bai, Aranoltza auzoan, jaio nintzan baserrian. Halanda be, lehengo aldiz ezkondu nintzanean, bost urte emon nebazan Bilbon. Eta gero, barriro Zamudiora.

Zergatik gelditu zara beti Zamudion? Zer emoten deustu?

Bigarren andrea Zaratamokoa da eta Galdakaon egiten dau lan; berak Galdakaon bizi gura izan eban. Halanda be, Zamudiora etortea onartu eban eta gaur egun poz-pozik gabilz. Zamudio zalea naz, bai, eta beti gura izan dot herrian bizi. Zamudiok askatasuna emoten deust: naturari lotuta zagoz, jentea ezagutzea eta eurekaz gustura egotea garrantzitsua da; eta hori herrian topatu dot. Geure euskeraz berba egitea eta aspaldiko kontuen barri emotea bakarrik Zamudion egin ahal dozu. Aita sano kontalari ona izan zan eta hainbat kontu adierazoten deuskuz, eta horren inguruan kanpoko bategaz ezin dozu berba egin. Eta ez da harrokeria, baina ni bizi nazen lekua polita da. Harro nago.

Zamudio izugarri aldatu da azken urteotan... Onerako ala txarrerrako?

Bai, gaur egun, 180 baserri dagoz herrian, baina 22 desagertu egin dira, industriaguneen inbasioagaitik. Trenak indar handia emon eutson herriari. Eta horri esker, Zamudio, besteak beste, Bilboko despentsea izan zan. Izan be, lehen zamudioztarran % 80 baserritik bizi ginan. Horrek nortasuna emoten eutson herriari eta hori guztia galtzea penagarria da. 1983ko uholdeetan, Bilbo hutsik gelditu

zan eta Mercabilbao San Mamesen aurrean egoan Erakusketen Azokara joan ginen gure produktuak saltzera. Bai, al daketa ederra egon da: batzuk onerako, eta beste batzuk txarrerako. Argi dago orain lehen baino aberatsagoak garana, baina aldi berean nostalgia sentiduten dot, lehengo bizimodua desagertu egin dalako. Gaur egun, oso gitxi bizi dira baserritik.

"Zamudion naturari lotuta zagoz; jentea ezagutzea eta gustura egotea garrantzitsua da; hori herrian topatu dot"

"Zamudion 180 baserri dagoz, baina 22 desagertu egin dira. Penea da, lehengo bizimodua galdu egin dalako"

"Baserriak kultura zabala emoten dau; baserriar batek edozein gairi buruz hitz egin ahal dau: bendejea, animaliak..."

Familia baserritarra, baina zu lantegi batean aritu zinan. Zergaitik?

1950erako baserriaren gainbehera igarten hasi zan. Esate baterako, 1960an esnea ontziratu barik saltzea galarazo zan Bilbon eta, ondorioz, baserriek behien kopurua murriztu egin behar izan eban. Bendejearen ekoizpenak, ostera, gora egin eban. Era berean, Bilbon kanpoko barazkiak be hasi ziran saltzen. Beraz, ingeniari-tza ikasi neban eta lantegi baten egin neban behar, erretiroa hartu arte. Halanda be, ez dot inoz baserriagaz hartu-emonu galdu. Baserriko giroan eroso nago: baserria ez da bakarrik lantokia edo bizilekua, bizimodua baino. Adibidez, urrian, artoa batzen genduanean, familia osoa batzen ginan etxeko atarian osagaiak bereizteko: indaba, artaburua eta lastoa. Baserriak kultura zabal bat emoten deustu: baserriar batek edozein gairi buruz hitz egin ahal dau: bendejea, animaliak, eguraldia, basogintza... Eta kultura hori belaualdiz belaualdi hel-arazoten zan.

Baserrian zaldiak euki dozuz...

Bai, nagusitan, nik gozatzeko. Lehen zaldiak baserrian lan egiteko euki genduazan. Aitak argi esan eustan: zaldiak ez dira ibilteko, hori aberatsen kontua da eta. Donejakue Bidea zaldiz egitea pentsau neban, baina azkenean ez, ez nebalako argi ikusi. Horren haritik, zaldiz etorren erromes bat hartu neban nire etxean eta berari Bidea zaldiz egiteari buruz galdetu neutsanean hauxe esan eustan: Jaungoikoaz fidatu zaitetz eta berak lagunduko deustu.

Sarritan ikusi zaitugu zaldiz eta txanoa jantzita Zamudiotik, cowboy-a izango bazina moduan...





Bai, domeketan joaten nintzan zaldiz paseatzera. Zamudioko iparraldea da politena zaldiz edo oinez ibilteko: Geldo, Daño... Behin, Parke Teknologikoan, espaloian nembilela, segurtasun-langile bategen esan eustan: “¡Oiga, no se puede andar por la acera!”. Nik ulertzen ez nebala esan neutsan eta birritan gauza bera errepikatu ostean hauxe adierazo eustan: ¡NO SE PUE-DE AN-DAR POR LA ACE-RA! Ez deust inork hain argi gaztelaniaz inoz egin (kar, kar). Espaloitik errepidera joan nintzan, jakina.

Euskereaz berba egin daigun. Lagatzu euskera alkartearen sortzaile-etako bat izan zinan.

Bai, 1999an "Bai euskarari" kanpaina zabaldu zan eta, horretarako, lan-taldea sortu zan herrian. Hor gengoanok uste

genduan Zamudiok, herri euskalduna izanda, euskera taldea behar ebala. Izan be, ezagutza bai, baina erabilera nahiko eskasa zan. Lagatzu sortu genduan, gero TOTOAN, gero AIKOR! aldizkaria... Hailanda be, euskerearen egoera ez da ona. Emoten dau batzuk ez dakiela euskaldunak dirala. Erdaldunari ezin deustazu euskeraz egitea eskatu; euskaldunari, bai, ostera. Euskereak ez dau inoz osperik euki. Zamudion oso gatxa da euskera hutsean bizi izatea. Erdaraz, ostera, oso erraza. Anbulategian, esate baterako, harreragilea bada euskalduna, baina erizanak ez. Jarraitu behar dogu beharrean euskerearen alde.

Nekagarria da militantea izatea?

Bai, taberna baten eskatzea eta morroiak “no te entiendo” esatea be...

Nik gurago dot “¿podrías hablarme en castellano, por favor?”. Bizkaian mila militante egongo balira, gauzak desbardinak izango litzateke. Erdalduna izatea ez da bekatua, inondik inora; bekatua beste hau da: berton bizi eta euskeraz egiten dauen bati “no entiendo” esatea, mespretxu ikaragarria dalako. Ingeles bati ez leuskiolako esango, laguntzen ahaleginduko litzateke, eta ondo eginda gainera. Eta hori ez da Gipuzkoan, Larrabetzun eta Markinan gertatzen, bertan sortuta daberen giroak errepesta bultzatzen dauelako. Euskereak osperik ez dauelako, eta hori herritarrek zein agintariek emon behar deustie.

Anekdotaren bat kontau ahal deuskuzu? Zer gertatu jatzu militantzia mantentzeagaitik?

Behin, basoa erre jakun eta su-hil-tzaileek faktura emon euskuen. Ordaintzera Bilbora joan behar izan genduan eta han gizon bat topau genduan. Euskeraz esan geuntsanean, “no entiendo” esan eban, guri begiratu barik. Eta nik hauxe erantzun neutsan: “Claro, usted será un enchufado anti euskaldun de la época de Franco”. Eta tramitea egin euskun. Harroputzei egurra emon behar jake. Beste bat gertatu jatan Bilbon, Segurantzaren Sozialean, erretiroa hartu nebanean. Hango andreak esan eustan: “huy, huy, huy, no sé si nos vamos a entender”. Ni isilik eta berari begira gelditu nintzan; urduri jarri zan; eta handik bost minututara euskaldun bat etorri zan, tramitea egiteko. Eta beste bat Ogasun sailan, Bilbon: erdaldun bategaz egin neban topo, eta nire txandea zanean esan eustan bera ez zala euskalduna eta barrero itxaron-gelara joateko. Handik gitxira, euskaldun batek hartu ninduan. Kexa bat jarri neban horregaitik Aldundian.

Euskalduna izateagaitik, bigarren mailako herritarra sentitu zara inoz?

Ez, baina askotan hori sentiarazo deustie. Errazena euskeratik gaztelaniara

"Euskereak ez dau inoz osperik euki. Zamudion oso gatxa da euskera hutsean bizi izatea. Erdaraz, ostera, erraza"

"Euskalduna izateagaitik ez naz bigarren mailako herritarra sentitzen, baina askotan hori sentiarazo deustie"

"Etorkizuna ez dot txarto ikusten. Gaur egun, gazte guztiek dakie euskeera; beraz, erabilera bultzatu behar da"

aldatzea da, baina zer gertatzen da hori egin gura ez badogu? Maisu-maistra izateko Bizkaian euskerea beharrezkoa da, jakina, D eredia nagusitzen dalako; baina, Ertzaintzako azken deialdiaren herenak ez dau euskerea jakin behar izan. Heren hori beti egokitzen jat niri. Eta hori erdaldun batek ezin dau esan, beti bere hizkuntzan erantzuten deuselako.

Eta gazteek, zuen lekukoa jasoko dabe?

Etorrizuna ez dot txarto ikusten. Gaur egun, gazte guztiek dakie euskerea; beraz, erabilera bultzatu behar da. Formula magikorik ez dakit, ez da erraza, baina baikorra naz: euskereak urteak eta urteak daroaz bizirik eta Euskal Herriko biztanle gehienok badakigu euskerea.

Lagatzu alkarteak herriaren babesa euki dau. Zein da egoerea gaur egun?

Barritze prozesuan gagoz. Eta hori egin den dogunean, Lagatzuk be badau etorkizuna. Zorionez, dirulaguntza sendoa dogu Zamudion, beste herri batzuetan gertatzen ez dan moduan. Eta hori aprobetxatu egin behar da, Lagatzuk dauen ospea mantentzeko eta jarraitzeko.

“Txorierriko proiekturik politena”

Baserri Antzokia TOTOAN Txorierriko Euskera Alkarteen Federazioak babestu eban 2016an hori martxan jarri zanean. Hasieran, Gabrielek ez eban proiektuagaz bat egin, baina gero Fundazioara sartu zan. "Batetik, taberna dago, gure motor ekonomikoa; eta bestetik, fundazioa, eta ni horren mahaikidea naz. Beraz, kudeaketan egiten doguz: bazkideak doguz, handiak zein txikiak... Hau ez doa berez, bultzatu behar da eta horietako bat neu naz", esan deusku.

Baserri Antzokiaren proiektua 2010ean hasi zan eta "buelta asko emon ostean", hemen dago. "Txorierriko proiekturik politena da. Lurzorua Derioko Udalak itxi euskuen 60 urterako, garai hatako Lander Aiarza alkatearen eskutik. Berak proiektuan sinetsi ebalako gagoz hemen. Handik aurrera erakunde publikoak gugaz ahaztu egin dira, hau



da, ez dogu diru publikorik jasotzen. Etorriko dira garai hobeak, baina ezin gara kexatu, Baserri Antzokian gauza asko egin ahal direlako. Pozik gagoz, leku polita eta atsegina, euskeraz egiteko eta gozatzeko".

Txorierri gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



**2021-22 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK**

**MAILA GUZTIAK
% 50 ETA % 70EKO DIRU-LAGUNTZAK
ORDUTEGI ZABALAK
INFORMA ZAITEZI!**



EUSKARAZ

**ZABALDU
2021-2022
AUKERAK**

Atletismoa oinkada luzez Txorierrin

BESTE BIRA LOIU KLUBA

Beste Bira Loiu kluba duela lau urte sortu zen Txorierrin atletismoa bultzatzeko. Talde gaztea da, baina sendoa, eta gaztetxoei zein nagusiei korrika egiteko aukera eskaintzen die, zaletu nahiz federatu mailan. Entrenamenduak Loiu eta Derion egiten dituzte eta aurtengo denboraldian jarduera Zamudiora ere zabaldu dute. Igor Barcia klubaren presidentea da, eta taldearen nondik norakoak bere eskutik ezagutu ditugu.

t Itxaso Marina / a: Beste Bira Loiu

"Hamar urte nituela hasi nintzen atletismoan, baina ez nuen inoiz klub bat sortzeko aukera aztertu, harik eta duela urte batzuk alaba korrika egiten hasi zen arte", azaldu digu Barciak. "Konturatu ginen Txorierrin ez zegoela ezer umeek atletismoa praktikatzeko eta, gainera, korrikalari nagusiok bakoitza bere klubean genbiltzala; hortaz, taldea sortzera animatu ginen. Loiu Udalak ere lagundu zigun Beste Bira Loiu klubari itxura ematen".

Klubak beste kirol-aukera bat ekarri du Txorierrira, eta horregatik izan du hain harrera ona, hain zuzen ere. "Zalantzak egon ziren hasieran, batez ere egin beharreko izapide guztien berri izan genuenean... Baina, aldi berean, ikusten genuen ekimenak aurrera egiten zuela, arroparen diseinua, umeak izena emanaz joaten zirela...". Barciaren esanetan, us-te baino korrikalari gehiagorekin hasi zuten egitasmoa. "Umeak eta nagusiak kontaktuta 40 bat lagun ginen. Aurtengo denboraldiari dagokionez, 70 ume baino gehiago izango ditugu, eta 20 goi-kategoria. Sondikan eta Derion ere oso harrera ona izan dugu eta horrek taldeari handitzen lagundu dio: ahoz ahokoak ederto funtzionatzen du, izan ere, gaztetxoek oso ondo pasatzen dute eta lagunei eta gurasoei kontaktzen diete;



"Klubak beste kirol-aukera bat ekarri du Txorierrira eta horregatik izan du hain harrera ona"

azken batean, hori da garrantzitsuen. Era berean, hasierako akatsak zuzendu izana lagungarria izan da taldea handitzeko".


Basa Loiu dute arren, klubaren helburua da atletismoa Txorierrin osoan bultzatzea. Hori dela eta, Larrondon hasi ziren entrenatzen eta ondoren Deriora zabaldu zuten egitasmoa; aurtengo denboraldian ere egongo dituzte entrenamenduak. "Txikiak Larrondon entrenatzen dira eta Zamudion hasteak ahalbidetuko digu atletismoan serioago aritu nahi duten gaztetxoei horretarako

aukera ematea. Gainera, atletismoan serio entrenatu nahi dutenek Fadura joatea dute. Esandakoak dira klubak entrenatzeko eskaintzen dituen hiru aukerak eta taldeak gurasoen eta korrikalarien lehenetsuen arabera osatuz joaten dira; nolahi ere, korrikalarien batek gaitasun berezia duela ikusten badugu, bere egoera aztertzen da, eta erabakiak hartu".

Txikiak astean behin edo bitan entrenatzen dira. "Hori nahikoa da ikasteko, baina norberaren exigentzia handituz doan heinean, konstantzia ere handitzen



a: Gotzon Garcia



a: festak.com

da eta baliteke asteko egun guztietan entrenatzea". Ez dago atletismoan has- teko gutxieneko adinik. "Lau eta bost urteko korrikalariak ere baditugu. Hori bai, lan espezifikoagoa egiteko, itxaron behar da nagusitxoagoak izan arte; hau da, federatuta dauden kategorietara arte. Baina, hori baino lehen, helburua da jolastea eta ikastea". Klubaren korrikalarien artean, esaterako, Eduardo Manzanos dago, Malagako Master Nazionalerako txartela eskuratu zuena. Baita Unai Careaga ere. "Probatzearren hasi zuen duela urte batzuk, eta aurreko denboraldian Bizkaiko txapelkunordea izan da 1.500 metroko lasterketan; poztasun handia izan da aurrera nola egin duen ikustea. Aner Cespedes eta Adrian Uriarte Eskolako Krosaren Bizkaiko Seleizioan sartzea ere oso pozgarria izan zen".

Ikuspegi erromantikoa

Barciak entrenatzaileak ere ekarri ditu gogora. "Joseba Bermejo, klubaren atleta ere badena, hasiera-hasieratik dago gurekin. Gaztetxoek asko maite dute, ederto batean pasatzen dutelako bere

"Lan espezifikoagoa egin aurretik helburua da jolastea eta ikastea"

entrenamenduetan eta jolasetan. Oier Medinak eta Leire Barciak laguntzen diote txikienak –talde handiena– entrenatzen. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiogu Manuel Benitori, Zamudion entrenatzaile ibiltzeko proposamena onartzeagatik. Azkenik, Enrique Castelok Faduran entrenatzen ditu atletak". Presidentek adierazi duenez, lorpenik handiena izan da klubaren kamiseta Bizkaiko eta Euskadiko lasterketa nagusietan ikustea. "Adibidez, Euskadiko kros txapelketa batera 20 talde sailkatu ginen eta guk 12. postuan amaitu genuen hura: udalerrri txikiena ginen eta oso hunkigarria izan zen benetan".

Beste Birak ideia bi izan ditu argi lehen urratsak egin zituenetik: alde batetik, gaztetxoei beste kirol-aukera bat eskaini

behar ziela; eta bestetik, gurasoek ahalik eta diru gutxien gastatuko zutela. "Beharbada, oso ikuspegi erromantikoa dut atletismoari buruz, baina dirua bakarrik erabiltzen da materiala eta kirol-arropa erosteko eta entrenatzaileei ordaintzeko; ez dago gehiagorik. Helburua ez da dirua irabaztea, baizik eta umeek ondo pasatzea eta lasterketa batera joaten direnean guztiek beren ekipamendua izatea eta korrika egiteaz harro egon daitezela. Gu, zer esanik ez, harro gaude entrenatzen edo probaren baten parte hartzen ikusten ditugunean".

Klubaren helburua da handitzen jarraitzea eta partaide guztiak Beste Biraren familiaren parte sentitu daitezela. "Eta batez ere lehiaketetan ibiltzea, politena da eta. Era berean, federatuta dauden atletei dagokienez, gastatuko litzaiguke taldea sendotzea eta bultzatzea, gizonezkoen zein emakumezkoen kategorietan. Urte hauetan, gutxienez, lortu dugu taldea ezagutzera ematea, atletismoaren munduan ezagutzera Txorierrin Beste Bira kluba dagoela eta abiapuntu ona dela etorkizunerako".



TALDEA GURENA
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK



ZURE NEURRIRA

BABESPEKO APARTAMENTUAK
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

EGONALDIK EGOITZEAN
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

Balio etikoetan oinarritutako ipuin-lehiaketa egin da Txorierriko Institutuan. Lehiaketa antolatzea otu zitzaizen filosofia eta balio etikoak irakasten dituzten irakasleei, hurrengo hauek jorratzeko: sormena, enpatia, autoestimua, introspektzioa eta idazmena. Lehiaketa DBHko lehenengo eta hirugarren mailetan egin da, lehenengo mailan bullyinga eta jazarpen-motak lantzen direlako, eta hirugarren mailan LGTBQ+ jorratzen delako. Gelako jarduera izan da eta ikasleek hiru eskola-saio izan dituzte istorioak pentsatzeko eta idazteko. Irabazleek diplomak eta Batxilergoko bigarren mailako ikasleek egindako poltsak jaso dituzte sarritzat. Uztaileko alean eta hurrengoetan irabazleen ipuinak argitaratuko ditugu Aikor! aldizkarian

t: Beñat Cristobal


2006ko otsailaren 28an

Laztana,

Zorionak! Bihotzez diotsut asko maite zaitudala, inoiz gertatu zaidan gauzarik onena zara. Jadanik 18 urte bete dituzu, ezin dut sinistu, buf zenbat! Oraindik ondo gogoratzen naiz zure irrifar alai eta begi berde distiratsu horietaz. Iloba bakarra izan dut baina dudarik gabe bereziena. Opari bezala pasarte edo istoriotxo bat kontatuko dizut, barrenbarrenetik kontatzen saiatuko naiz, sentitzen dudana papelean islatzen. Bihotzez, nire maitagarriarentzat:

1918. urteko udaberriko egun eguzkitsu eta argi batean Katalina izeneko neskatxa bat jaio zen Bizkaiko kostaldeko herritxo batean. Zazpi ume zituen familia bateko alaba gazteena zen. Txikitatik oso gustuko zituen Katalinak loreak eta liburuak, orduak pasatzen zituen etxeko lorategian irakurtzen. Etxeko txikiena zenez ez zuen arreta handirik jasotzen, Katalinari horrek ez zion gehiegi arduratzen, oso pozik bizi zen liburu eta lore artean. Harreman ona zuen bere ahizpa zaharrenarekin, Felisarekin, antz handia zuten gauza askotan. Herrian familia gutxi ziren, eta alde batetik edo bestetik denak ziren senideak. Herri txiki guztietan bezala zurrumurruak erraz zabaltzen ziren, Katalinari ez zitzaizkion batere gustatzen. Herrian ez zeuden elkartzeko toki asko, gizonak Joxe Mari tabernan elkartzen ziren, pare bat trago hartzen zituzten edo kartetara jolasten zuten gauerdiraino, bestalde, emakumeak herriko plazan edo baserrietan biltzen ziren, elkarrekin josten eta hitz egiten zuten. Aldiz, herriko haurrak edozein tokitan ibiltzen ziren jolasean eta gaiztakeriak egiten, baina gehienbat eskolan jolasten zuten. Katalinari izugarri gustatzen zitzaion eskolara joatea, ikasle zoragarria zen, irakasleek hamarreko neskatxa bezala deskribatzen zuten. Sarritan, etxeko

Amama Katalin(a)



Egilea, irudian

txikiena izan arren, bere ahizpa Bernarda, Kasilda eta Felisaren lanak egiten zituen. Bere adineko neskek ez bezala, ez zitzaion mutiletaz hitz egitea gustatzen, nahiago zituen beste gauza batzuk, horregatik, kalean eta jolastorduetan bakarrik ibiltzen zen. Etxean ere askotan laguntzen zuen behiak jeisten, baratzeko barazki eta lekaleak batzen, errekarara ur bila joaten...

Hautzaro lasai eta polita izan zuen Katalinak, liburuekin nahiko zuen pozik bizitzeko. Nerabazarora iritsi zenean bizitza guztiz aldatu zitzaion, 17 urte zituela familia berri bat iritsi zen herrira, alaba bakarrekoa, alabak Teodora

zuen izena. Teodorak ile labur eta marroia zuen eta begiak urdin-urdinak. Auzokideak ziren hauek, horregatik lehen momentutik egin ziren lagunak, ezizenak jarri zizkieten elkarri, Katalinak Teodora Teo deitzen zuen eta Teodorak Katalina Kata bezala. Denbora gutxian oso harreman estua sortu zuten, Katak izan zuen lehenengo laguna zen Teo. Antzeko zaletasunak zituzten biek, asko gustatzen zitzaizen naturaz disfrutatzea. Katalinak herriko txoko guztiak erakutsi zizkion Teori, orduak pasatzen zituzten landa artean saltoka, basoan ezkutaketetara jolasten, hondartza galduak aurkitzen... dena egiten zuten elkarrekin.

Teo herrira iritsi eta urte batera, 1936. urtean Espainiako gerra zibila hasi zen, herriko gizon batzuk borrokatzera joan behar izan ziren, horien artean Katalinaren aita eta nebak, hauek Bizkargi mendian borrokatu zuten, Bilboko burdinazko hesian. Herrian gutxi batzuk geratu ziren, familia asko erbestera joan behar izan ziren, hala nola Iparraldera, Frantziara, Ingalaterrara... Giroa asko tristetu zen herrian, beldurra eta gosea bihurtu ziren nagusi kaleetan, bando ezberdinetakoen artean liskarrak sortzen hasi ziren, eta gainera euskararen erabilera guztiz debekatu zuten. Teo eta Kataren bizitzak ere aldatu ziren, kalera irtetzea arriskutsua bihurtu zen, hortaz ez ziren hainbeste ikusten, gainera eskola itxi zuten, honek batez ere Katalinari mintu zion, bere ikasten jarraitzeko ametsa bukatu egin zen eta.

Katalinaren etxean egoera ez zen batere atsegina, honen amak eta ahizpek orduak ematen zituzten negarrez, faltan botatzen zituzten joan ziren senideak, Katalinak asko sufritzen zuen ama eta ahizpak horrela ikusita. Berak bere penak beste modu batean askatzen zituen, ahal zuen guztietan etxetik irteteten zen Teorekin egoteko. Inork ikusi gabe basora joaten ziren, bidetxo bat jarraitu eta haiek aurkitutako hondartza batera iristen ziren. Horrelako egun batean, etxetik irten eta basorantz abiatu ziren, udako egun bero eta eguzkitsu bat zen. Hondartzara iritsi zirenean, Teok itsasoan sartzeko proposatu zion, jarraian Teok arropa kendu zuen eta guztiz biluzturik uretara joan zen korrika, bat batean Katalinak berotasun bat sentitu zuen gorputz guztian barrena, inoiz ez zuen berdina sentitu, baina bazekien Teok eragin ziola berotsaun hori. Askok pentsatu gabe bera ere biluztu eta Teorekin batera sartu zen uretara. Bata besteari bustitzen hasi ziren, hondarra gorputzetik elkarri igurzten, halako batean aurpegiak gehiegi hurbildu eta musukatu egin ziren, Katalinak berriz sentitu zuen berotasun hori. Hurrengo egunetan ere batera joan ziren hondartzara, bazekien haien arteko maitasuna ez zuela inork onartuko, baina prest zeuden dena emateko maite zuten horregatik.

Gerra aurrera zihoan heinean errepre-sioa gero eta handiagoa bihurtzen hasia

zen, kaleak guztiz arriskutsuak bihurtu ziren, militarrek kaleetatik ibiltzen ziren herriarrak mehatxatzen eta jipoitzen, baita hainbat emakume bortxatzen. Gainera Gernikako eta Durangoko bonbardeaketen ondoren beldurra oraindik gehiago areagotu zen. Hilabeteak pasatu zituzten horrela, egoera zela eta gutxi batzutan ikusteko aukera zuten, gainera inguruko herrietan atxilotuak zeudela zabaldu zen herrian. Kata eta Teo beldurtu egin ziren, bazekien atxilotuak haiek izan zitezkeela, orduan haien beldurra bikoiztu egin zen, alde batetik emakumeak zirelako eta bestetik homosexualak.

Militarrak herriz-herriz zebiltzan feministak, desertoreak, komunistak, sozialistak, ijituak, homosexualak... atxilotzen. Haien eguna ere iritsi zen, antza denez herrikoen batek salatu zituen, Iraileko goiz batean militarrek herrira iritsi ziren, zuzenean Kata eta Teoren auzora abiatu ziren, eskuak loturik zituztela arrastaka atera zituzten haien etxeetatik, atzetik haien senideen gurrustuak entzuten ziren, mina adierazten zuten gurristu hauek. Plazara eraman zituzten, herri guztiaren

aurrera, bertan guztiz mespretxatu eta iraindu zituzten, ostean kotxe banatan sartu zituzten. Haiek ez zekiten baina momentu hartan azkenekoz ikusiko ziren, egun hartatik aurrera bakoitza espetxe desberdin batera eramango zuten, Kata Malagara eta Teo Madrilera.

Hilabete gutxira Teo militarrek fusilatu zuten Madrilgo espetxean, jarrera "oldarkorra" eta ideologia ezkertiarra aitzaki bezala. Aldiz, Katalina 1942. urtean askatu zuten, baina gauzek ez zuten berdin jarraitu, Teoren erailketaren berri eman ziotenean mundua gainera erori zitzaion, ezin zuen sinistu gertautakoa. Ondorengo urteetan trauma askorekin bizi izan zen Katalina, espetxeko torturak gogoan izan zituen denpora luzez eta amets gaiztoak gauero izaten zituen, baina batez ere minik sakonena Teoren falta zen, bizitza osorako hutsune bat utzi zuen.

Amama Katalin(a).

"Ez ahaztu inoiz, aske bizi eta aske maitatu"

aek
euskara praktikoa

Txorierriko Txepetxa
AEK euskaltegia

MAILA GUZTIAK: A1, A2, B1, B2, C1

HABEK homologatutako euskaltegia
Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak
Herrian bertan ikasteko aukera
Autoikaskuntza
Online ikastaroak

Matrikula zabalik

Gorbea kalea 5, behea, Derio
94 454 39 67 | 607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA
HABE

TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA

LARRABETZUKO
UDALA

“Gazteoi ez zaigu herrian bizi izateko aukera eskaintzen”

AITOR LEJARRAGA ETA ANDER PEQUEÑO | Etorkizuna Eraikitzen plataformaren kideak

Etxebizitzaren aldeko plataforma ekainean aurkeztu zuten jendaurrean. Hura Lezamako zenbait elkartek eta herritarrek osatzen dute eta udalari eskatu diote hirigintza-plana egiteko, herrian jabetzarako edo alokairurako etxebizitzak eraikitzeko. Lejarraga eta Pequeño kideetako bi dira eta, gazteak diren heinean, etxebizitza-eskasiak zuzeneko eragina du haiengan.

a: Etorkizuna Eraikitzen

Zuen ustez, zeintzuk dira etxebizitza arloan Lezaman dauden beharrianak?

Azken bi hamarkadetan bakarrik etxebizitza libreak sustatu dira eta horietako asko dentsitate txikikoak izan dira, baita familia bakarreko etxebizitzak edo txaletak ere. Horren ondorioz, hiri-lurzoruaren okupazioak ez du etxebizitzaren eskaintza asko handitzea ekarri, eta, hortaz, prezioak oso altu mantendu dira. Gaur egun salgai dauden etxebizitzaren eskaintza urria da, eta oso garestia. Alokairuko etxebizitzaren eskaintza ere oso txikia da, eta Etxebidek kudeatutako programei dagokionez, bat ere ez dago.

Lezaman hirigintza-plana al bait ari- nen egiteko eskatzen duzue, nolakoa izan beharko luke?

Etxebizitza duina eskuratzea legeak aitortutako eskubideada. Administrazioak, kasu honetan udalak, ahaleginak egin behar ditu bere bizilagunek eskubide horri heldu ahal izateko. Lezamak 3.000 biztanle baino gutxiago ditu eta, ondorioz, ez ditu herri handiangoek derrigorrean bete behar dituzten eraikitze-baldintzak bete behar; baina, gure ustez, etxebizitzak egiteko orduan, Lezamak gutxienez 3.000 biztanletik gorako herriek bete beharreko legedia bete beharko luke. Hau da, etxebizitza babestua % 40 izatea hiri-lurzoruko garapenetan, eta % 75, lurzoru urbanizagarrietan edo urbanizaezinetan. Etxebizitza-kopuruari dagokionez, kopuru zehatzik proposatzen ez badugu ere, badakigu 1988ko arau subsidiarioetatik abiatuta garatu daitekeen plan batek



100 etxebizitza baino gehiago aurreikusi ditzakeela, eta, gure iritziz, kopuru interesgarria da Lezamako egungo etxebizitza-merkatuaren baldintzak nabarmen hobetzeko. Bestalde, oso garrantzitsutzat jotzen dugu herritarren parte hartzea izatea hirigintza-planaren ardatz egituratzailerak, bai diagnostiko-fasean, bai diseinu-fasean.

Zuen ustez, proposamen hori aurrera eramateko baliabiderik badago Lezaman?

Baliabideak egon badaude. Udalak deitutako bileretako batean alkateak berak komentatu zuen lurzoru bazegoela eraikitzeko, eta kontuetan ere dirua zegoela behintzat eraikitzen hasteko.

Nola bizi duzue gazteek egoera?

Amorruz. Nahiz eta etorkizunean Lezaman bizi nahi dugun, gure errealitatea beste bat da, ez zaigulako aukera hori eskaintzen. Hortaz, adin konkretu batera helduta, zure betiko herritik alde egin behar duzu, eta berriz ere zerotik hasi, horrek dakartzan arazo eta ondorioekin. Hogeita hamar urteren bueltan gabiltzan plataformako kideok badakigu Lezaman etxebizitza berria erostea urte dezentezko gauza izango dela, baina atzetik datozen gazteek guk jasandakoa ez pairatzea nahiko genuke, eta horretarako etxebizitza berriak bultzatzea funtsezkoa da, etxebizitzak ez baitira egun batetik bestera eraikitzen.



Elkarte heterogeneoa

Etorkizuna Eraikitzen plataformaren baitan herriko zenbait talde eta lagun daude: Gazte Asanblada, Moreak, Lezama Bizirik eta herriko gazte batzuk. "Ahalik eta kolektibo gehien biltzea dugu helburu, etxebizitzaren arazoa ez dugulako soilik gazteok pairatzen: adineko herritarrek, elbarrituek eta alargunek ere arazoak dituzte Lezaman etxebizitza duina eskuratzeko. Ateak beti ditugu zabalik herritar berrientzako; beraz, interesik badago, etorri lasai gugana". Plataformak badaki, bere helburua lortzeko, bide luzea duela aurretik. "Biltzen hasi ginen lehen egunetik bertatik argi izan genuen ez zela egun bateko lana izango; hau da, nahiz eta helburua argi izan, bide luzea dago helmugara ailegatzeko. Era berean, argi genuen lehen pausoak argiak izan behar zirela. Zenbat eta aukera edo baliabide gehiago izan horretarako, askoz hobeto".

Zer-nolako ondorioak ekarri litzake herrian etxebizitza babesturik ez bultzatzeak?

Ondorio larriak. Herri batek izan dezakeen ondasun eta indar handiena galtzea eragingo luke: gazteen ekarpena. Biztanleriaren zahartze-prozesua egongo da eta zerbitzuak ere gero eta eskasagoak izango dira, horrek dakarren galera ekonomiko gehituta.

Bilera batzuk egin dira etxebizitza-arazoaren harira, eta haietako batean Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ere hartu zuten parte. Zein ondorio atara duzue?

Gustatuko litzaiguke aurrerapausoak egiten behingoz hastea. Batzarrek publi-

"Salgai dauden etxebizitzaren eskaintza urria eta oso garestia da; alokairuaren eskaintza ere oso txikia da"

"Etxebizitza babesturik ez bultzatzeak eragingo lezake herriaren ondasun handiena galtzea: gazteen ekarpena"

koki oihartzuna izan dezakete, baina batzar hori egin zenetik hona udalak ez du ezer esan. Aukerak egon badaude, lurzoru zein ekonomia aldetik. Gainera, Eusko Jaurlaritzak bere burua publikoki eskaini zuen babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko erraztasunak emateko, eta udalak ere baieztatu zuen eraiki nahi dituela. Baieztapena ondo jaso genuen, baina ez ditugu epe luzeak nahi, albisteak baizik.

Plataforma duela hiru hilabete aurkeztu zenuten jendaurrean. Zeintzuk dira orain arte egindako urratsak?

Ahalik eta jende gehienengana heldu nahi dugu. Uda sasoi gatza da biztanleriarengana heltzeko, baina proiektua martxan da eta ez dago atzera egiterik. Zerbitzua eskainiko dugu Lezamako edozein biztanlek gai honen inguruan dituen zalantzak argitzeko. Etxebiden izena emateko erraztasunak eman ditugu eta ematen jarraituko dugu, batik bat beharrezko azaleratzeko aukera bakarra delako.

Eta zein izango da datozen hilabeteetarako ibilbide-orria?

Uda bueltan hasi gara berriz ere batzarrak egiten, hurrengo hilabeteetako lana antolatzeko: orain arte egindakoa ez da nahikoa eta lanean jarraitu behar dugu. Udalean idatzi bi aurkeztu ditugu eta udalarekin elkartzeko asmoa dugu, baina euren erantzunaren zain gaude. Elkarlanean aritzea beharrezkoa dela uste dugu: helburu berberari begira lan egin behar dugu, herriak behar duelako.

Ursula psicóloga
Psikologia & Neuropsikologia

Aurrez aurreko terapia
Onlineko terapia

644 649 752
ursula@cop.es
Las Mercedes 31, 4., 3. bul. (Abra 3 erakina)
48930 Areeta (Getxo)

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kirurgiasajean

clínica dental ZAINDUZ hertz klinika

Txantoni eztebidea, 6 - Lorja | Ansoaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 43
info@dentatzaizuduz.com | www.dentatzaizuduz.com

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-itxialak, orokorrak
Auzokoen konstantiak
Mantentzeko garbi-itxialak
Belargak eta lokailak
Oinezkoen garbiketa
Dantzetarako
Zabor biketa

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Nire Autoocasion NA

INPORTAZIOA ETA SALMENTA


MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai itegizua Facebook-en



Algarve, Aitor Lasa.



Montes del Pas-eko bailarak, Jon Etxebarria.



Udako oporrak

Peñíscola, Iratxe Pirla.



Ola, Alain Eiguren



Pasaia, Idoia Mendizabal




Peñíscola. Iratxe Pirla.



Alcoceber, Iratxe Pirla.



Peñíscola, Iratxe Pirla.



Ondarroatik, Mutrikura Saturran hondartzatik, Alain Eiguren.




Berria hondartza (Santoña), Jabier Perez.




Hondarribia, Javi Melendez



Ikuspegia, Orkatzategitik, Alain Eiguren




Algarve, Aitor Lasa.




Lekeitio, Talaiatik, Alain Eiguren.



Lekeitioko irla, Alain Eiguren.



Ilunabarra, Salinasen, Alain Eiguren.



Alcoceber, Iratxe Pirla.

Txorierriko Berbalagun egitasmoan izena emateko epea zabalik



“Euskaraz amets, hamaika aukera euskaraz praktikatzeko!” lelopean, Txorierriko Berbalagun egitasmoan izena emateko epea zabaldu da jada eta 635 753 595 telefono-zenbakira deitu behar da horretarako. Era berean, whatsapp-mezua bidali daiteke esandako telefono-zenbakira, edo txorierrri.berbalaguna@gmail.com helbide elektronikora mezu bat idatzi. Egitasmoaren arduradunen hitzetan, parte-hartzaileek esaten dute Berbalagun aukerarik onena dela ondo pasatuz euskara praktikatzeko. “Satisfakzio handia ematen du horrek, baina beste sentsazio positibo pila bat ere ekartzen ditu euskaraz aritzeak. Hori guztia Mintzapoza da haientzat”.

Berbalagunek adierazten dute egitasmoari esker, lehen ezagutzen ez zuten mundu bat deskubritu dutela. Gainera, aspalditik ezagutzen zuten jende asko euskalduna dela konturatu dira, eta haiekin euskaraz egiten hasi. “Harreman berriak ere eraiki dituzte euskararen inguruan eta orain askoz zabalagoa da haien mundua. Euskara praktikatzeari merezi du. Euskal Herrian gero eta jende gehiago aritzen da mintza-taldeetan euskara hartzen eta ematen, euskararen sarea indartzen eta

zabaltzen”. Eta horixe da hain zuzen ere Berbalagunen mundua. “Zabaldutako atea eta praktikatu euskara talde-giro hurbilean. Ez izan beldurrik edo lotsarik zure euskarmaila baxua delako, hor dabilen jendea zu bezalakoa da eta ez dauka aurreiritzirik”.

Izan ere, Berbalagun egitasmoak elkartzen ditu euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak eta euskaraz egin nahi duten pertsonak. Talde txikietan eta astean behin, parte-hartzaileak batzen dira paseatzeko, kafe bana hartzeko edo bururatzen zaiena egiteko; hau da, euskaraz aritzeko eta bizitzeko. Gainera, mendi taldea osatu dute berbalagun batzuek eta astearte goizean batzen dira Bizkaiko bazterrek ezagutzeko. Bizkaiko Bira egin dute dagoeneko eta orain beste bazter batzuk ezagutzeko irrikan daude. Beraz, mendira joan eta euskaraz aritzeko gogorik baduzu, animatu! Bestalde, urtean zehar hainbat ekintza osagarri ere antolatzen dira euskaraz bizi ahal izateko, hala nola aforiak, tailerrak, ibilbideak eta museoetara bisita gidatuak.

Berbalagun egitasmoan modu bitan hartu daiteke parte: euskara praktikatzu (bidelaria) ala euskara praktikatzen lagun-

telefonoa:
63575 35 95
e-maila:
txorierrri.berbalaguna@gmail.com
antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

duz (bidelaguna). “Berbalagun izateko baldintza bakarrak dira euskaraz komunikatzeko gai izatea eta gutxienez astean ordubetez elkartzeko prest egotea. Zeren zain zaude? Ez izan zalantzarik eta etorri Txorierriko berbalagunekin euskaraz bizitzera eta amestera!”.

Gurasolagunak ere prest

Udako oporraldiaren ondoren, Txorierriko gurasolagunek indarrak berriro dituzte eta gogotsu ekingo diote datorren ikasturteari. Egitasmo honetan izena emateko epea ere zabalik dago jadanik.

Helburua da gurasoek seme-alabekin eta beste guraso batzuekin euskaraz naturaltasunez hitz egitea. “Horretarako, eskola ostean batu ohi dira, aire zabalean, euskaraz jolasteko, besteengandik ikasteko eta bururatzen zaizkien ekintza guztiak egiteko. Aukera polita baino politagoa da hizkuntza-arloan ere seme-alaben eredu izateko eta umeek eskolaz kanpo ere euskara hizkuntza bizia dela ikus dezaten”.



Itsaso eta ozeanoen deia

t/a: Joanes Camara

Ingurumena eta planeta errespetatzen dituen gizarte baten alde egin dugu beti Emaus Fundazioan, eta horregatik, ideia horri eusteko, hainbat egitasmo sustatu ohi ditugu urterik urte: materialak birziklatzea, zaborrik gabeko guneak, objektuak berriro erabiltzea... Egunero sortzen ditugun hondakinak murriztea guztion ardura da, eta PAI Bitartean zerbitzuko Derioko eguneko egoitzan zenbait ekimen ipini ditugu martxan esandako ardurari ekarpena egiteko. Alde batetik, oihalezko poltsak egin ditugu, plastikozkoak ez erabiltzen saiatzeko, izan ere plastikozko poltsak erabilera bakarrekoak dira askotan. "Bolsas antibolsa" lelopean, oso harrera ona izan dute komunitatean. Bestetik, eta Ozeanoen Nazioarteko Egunaren harira, heziketa-hitzaldia antolatu genuen Kultur Birikan.

Hitzaldian 30 lagun batu ginen: batzuk PAI Bitartean zerbitzuko erabiltzaileak izan ziren, eta besteak, txorierriarrak. Alberto Santolaria aritu zen hizlari. Santolaria itsas biologoa da, Nakusarbe elkartekoa, eta eskarmentu handia du. Gure itsasoen eta ozeanoen berri eman zigun eta bere eskutik ezagutu ditugu datu asko; adibidez, 2050ean, itsasoan arrainak baino plastikozko poltsa gehiago egongo di-

rela eta itsasoko arrainen barrualdean mikroplastikoak –plastiko-zati txikiak– daudela. Datu horiek ezagututa eta ziurgabetasunez betetako etorkizuna dugula kontuan hartuta, aholku batzuk eman zizkigun egoerari aurre egiteko.

Bere esanetan, jarraitu behar dugu etxean, lanean... birziklatzeari garrantzia ematen: modu horretan hondakinak bereizten lagunduko dugu eta, hortaz, plastikoa erarik onenean sailkatu ahal da, plastikoa modurik onenean berriskuratzeko eta merkatura berriro sartzeko. Era berean, jakinarazi zigun etxebizitzetako txorrotetan iragazkiak ipintzea oso mesedegarria dela, uretan egon daitezkeen mikroplastikoak eta beste kutsatzaile batzuk –esaterako, kloro gehiegi egotea– hartzea ekiditeko. Horrela, eta egunero bi litro ur edatea gomendagarria dela kontuan izanda, saihestu egingo ditugu gaixotasunak etorkizunean.

Bestalde, hondartzak birgaitzeko proiektuak sustatu dira munduko hainbat lekutan eta haiei buruz ere hitz egin zigun. Itsasoak ehunka kilo plastiko eramaten ditu leku horietaraino eta borondatezko lanari esker lortu dute arazoari aurre egitea eta hori konpontzen dabilta. Beste batzuen artean azpimarratu daiteke Versoba hondartzan aurrera eramandako lana, Indian.



Amaitzeko, fitoplanktonaren garrantzia nabarmendu beharra dago. Itsasoan bizi diren organismo txiki-txikiak osatzen dute fitoplanktona eta hori itsas animalien oinarritzko elikagaia da. Horrezaz gainera, oso garrantzitsuak dira planetarako, zeren eta luraren oxigenoaren % 75 sortzen baitute eta karbono dioxidoaren % 25 xurgatzen baitute. Ezinbestekoa da itsasoak eta ozeanoak garbi egotea, organismo txiki-txiki horiek euren egin-kizunean jarraitu ahal izateko.

Oso saio interesgarria eta baliagarria izan zen. Haren ostean, Ganbara Gizarte Irratira gonbidatu genuen Alberto Santolaria bertan elkarrizketatzeko. Elkarrizketa Soundcloud plataforman dago entzungai, Emaus Gizarte Fundazioaren kanalean.

Artoa eta garia zorro berean ez

Eskolako euskara eta etxekoa



t: Juan Luis Goikoetxea / a: www.grist.org

Euskaldunak dira denak, baina etxetik erdaldun datorrena garia da, etxetik euskaldun datorrena artoa, eta zaku berean ez dira sartzen.

Begire nago begire
goiko kamino barrire,
noiz etorriko ete dan ai
neure maitea herrire?

Orain 15 urte Maria Arrietagandik ikasi nuen koplak zaharrena ahapaldi hori. Erraz ulertuko duzunez, irakurle, koplak sentimendu karga ere badakar barruan; niretzat ez da edozein kanta bezalakoa. Eskolan, eduki linguistikoez gainera, ikasleen alde psikologikoa eta motibazioa izaten dira kontuan. Hizkuntzen ikasketa eta beste ikasgai ba-

tzuetakoa desberdinak dira. Zergatik? Hizkuntza pertsonaren alde sozialari dagokiolako.

Irakasleak ere sor ditzake ikasgelan neuk abestiarekin jaso ditudan sentimenduak edo antzerakoak. Lor dezake etxetik euskaldun datorrenaren enpatia, euskararen aldeko jarrera; baita etxe erdaldunetik datozen neska-mutilentzat ikasgelako euskara etxeko bilakatzea ere. Koplak hau buruz ikastea helburu horrekin landu daiteke. Nola? *Kopla zaharrak* Tapia eta Leturia-Amuriza diskoko "Begira nago begira" erabiliz.

Ondoren, metodo egokia da –abestia ikasi ostean– esatea: Orain idatzi koplak hau Euskaltzaindiaren arauen arabera. Adibidez: "Begira nago begira". Eta zerbait bizkaierakoa bada, batuan idatzi: ete bizkaierazkoa ote idatzi. Horrela, bizkaiera eta batua, bitzuak ikasten ditu ikasleak.

Jarraian, kontsultatu "begira" berba Euskaltzaindiaren hiztegian edo Adorez hiztegiaren, edo beste batean. Ikasiko duzu adiera bat baino gehiago dituela. Lehena: "Zuri begira (begiratzen) gelditu da Miren". Bigarrena: "Autobusari begira nago (itxaroten)". Beraz, lehenengo esanahia da: so egin eta bigarrena: itxaron. Hirugarrena... Hemen galdera bat sortzen da Hezkuntza Sailerako: Zein da arrazoiak paperezko hiztegiak ez edukitzeko ikasgelan?

Azkenik, –koplaren silabak eta errimak ulertu ostean–, esan dakiokoe ikasleari: Orain zeuk sortu koplak bat denon artean kantatzeko. Koplarako gaia: la-guntxo bat duzu zain (begira) musikara joateko.

Artoa eta garia hizkuntza berekoak dira–gramineak–, baina era desberdinean landu behar dira ikasgelako ortuan.

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO
Tel: 94 608 95 31

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

–Especialitate guztiak zentro bakar batean
–Aurrekontua duan
–Especialitateak: umeak

Urtebe 7, beheak
48160 DERIO (Bizkaia)

Etxeko sukaldaritza

Legatza labean, patatekin
eta tomatearekin

t: Maite Lekerika / a: cocinayvino.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 4 legatz-trontzo (200 gramokoak)
- 2 patata egosi (zurituak eta dadotan ebagiak)
- 2 tomate heldu (zurituak eta dadotan ebagiak)
- 2 berakatz-atal
- Kuiatxo 1
- Oliba olio, gatza, piperbeltz beltza eta perrexila

Prestetako errea:

Olio apur batez igurtziko dugu labeko plaka. Kuiatxo xerra luzetan ebagiko dugu. Xerrak olio apur

batez igurtziko ditugu, piperbeltz apur bat botako diegu, gatza ere bai, eta lau multzotan ipiniko ditugu labeko plakan. Kuiatxo-xerren gainean jarriko ditugu legatz-trontzoak, horiek ere olio apur batez igurtzita. Gatza ere botako diegu. Labean 10 minutuan izango ditugu 200 gradutan. Bestalde, legatza egiten den bitartean, olio-zurrusta bat botako dugu zartagin batera eta berakatzak bertan frijituko ditugu. Gorritzen direnean, tomate gehituko dugu, apur bat egin, eta ondoren patata egosiak botako ditugu. Zenbait aldiz eragingo dugu, su ezatian. Arraina eta kuiatxo lau plateretan banatuko ditugu, eta patatek eta tomateak lagunduta aterako dugu mahaira.

Izozki-sandwicha

a: larecetadelafelicidad.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 8 gaileta
- 4 izozki-bola
- 125 g txokolate (desegin dena)
- 25 g kakao-gurin
- 50 g hur (txikituak)

Prestatzeko modua:

Gailetak binaka hartuko ditugu eta haien artean izozki-bola bat ipiniko dugu. Ondo sakatuko dugu sandwichari itxura emateko. Sandwichak izozkailuan gordeko ditugu. Bestalde, hur txikituak ipiniko ditugu ontzi batean; eta beste batean, txokolatea (zatituta) eta kakao-gurina. Txokolatea eta kakao-gurina mikrouhin-labera sartuko ditugu desegin daitezen (30 segundo). Hozten utziko dugu. Azkenik, sandwichak txokolatean sartuko dugu, erdiraino; ondoren, hurretan.



GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baserniko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mixtine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

Umeen txokoa: sei desberdintasunak

Ezetz sei desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.recrekids.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–*Sekula ez liokete euli bati hegalik kenduko* (Txalaparta), Slavenka Drakulic. Itzultzailea: Amaia Apalauza Olló.
–*Bihotza negar eta irri* (Erein), Maryse Condé. Ilustratzailea: Antton Olariaga Aranburu.
–*Bertute txikiak* (Alberdania), Natalia Ginzburg. Itzultzailea: Irene Hurtado de Saratxo Mendieta.

LITERATURA: GAZTEAK

–*Krokodiloa* (Txalaparta), Giovanna Zoboli. Ilustratzailea: Mariachiara Di Giorgio. Andersen 2018 Saria liburu muturik onenari.
–*Nola izan naiteke atsegina besteekin?* (Tarttalo), Katie Daynes. Ilustratzailea: Chr istine Pym.
–*Hili* (Elkar), Uxue Alberdi Estibari. Ilustratzailea: Araiz Mesanza.
–*Katixa dorre magikoan* (Txalaparta), Antton Kazabon Amigorena. Ilustratzailea: Liebana Goñi Yarnoz.

Sudokua

9				4	5	1	
8		2	3			7	
				2		3	
	7						
			1	3		7	
		1	8				
	4	8				9	5
1		3	2		5	4	

8	9	4	5	7	2	3	9	1
7	5	9	1	3	6	8	4	2
3	2	1	8	4	6	7	9	5
9	6	3	7	5	8	1	2	4
5	7	4	2	1	3	6	8	9
1	8	2	6	9	4	5	7	3
9	3	8	2	5	4	1	7	6
6	3	9	1	6	7	4	8	5
5	1	2	4	8	7	6	3	9

ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

Bizkargi Kafetegia
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

Erakusketak

Derio

- > Bizkaiko Elizaren Historia Artxibora erakusketa eta bisita gidatua. Urriaren 19an. Izena emateko: 944 062 490.
- > "Ezagutu non sortzen den gure etorkizuna" argazki-erakusketa. Urriaren 12ra arte, Aralar kalean.

Hitzaldiak

Zamudio

- > Buruko gaixotasunak. Urriaren 9an, 20:00etan, Gaztestazioan. udalliburutegia@zamudio.eus.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Nerea Loiolaren *Epizentroa* obra. Urriaren 21ean, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.



Nerea Loiola idazlea

Ikuskizunak

Derio

- > Kantu Kolore. Urriaren 2an, 12:30ean, eskolan (sarrera-txartelak, udaletxean).
- > Nerea Garmendiaren bakarriketa. Urriaren 2an, 18:00etan, eskolan (sarrera-txartelak, udaletxean).

Zamudio

- > *Amaren intxaurrak*, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen eskutik. Urriaren 16an, 18:00etan, kiroldegian.
- > Beldurrezko pelikulak. Urriaren 29an, 30ean eta 21ean, 21:00etan, Gaztestazioan.

Irteerak

Lezama

- > Herriko ondarea ezagutzeko ibilaldia (umeentzat). Urriaren 10ean. Izena emateko: 944 556 126 eta liburutegia@lezama.org.

Musika

Derio

- > Pan Con Chile taldea (boleroak eta rantxerak). Urriaren 1ean, 18:00etan, eskolan (sarrera-txartelak, udaletxean).
- > Lost Preachers eta Southbound. Urriaren 1ean, 20:00etan, Baserri Antzokian.
- > Los Chimberos bilbainada-taldea. Urriaren 3an, 18:00etan, eskolan (sarrera-txartelak, udaletxean).
- > King Sapo. Urriaren 9an, 20:00etan, Baserri Antzokian
- > La Topadora. Urriaren 23an, 20:00etan, Baserri Antzokian.

- > Sonic Free Station. Urriaren 30ean, 20:00etan, Baserri Antzokian.

Ospakizunak

Zamudio

- > Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna. Urriaren 1ean, Adintsuen Etxean.
- > Hiru Bat dantza taldearen 50. urteurrena. Urriaren 23an.
- > Arimen gaua. Urriaren 30ean.

Tailerrak

Zamudio

- > Umeentzako tailer zientifikoa: dinosauoak. Urriaren 16an, 11:30ean, liburutegian. Izena ematea: 944 520 204 eta udalliburutegia@zamudio.eus.
- > Arimen gauerako argizari birziklatuak. Urriaren 23an, 20:00etan, Gaztestazioan.
- > Gore tailerra. Urriaren 31n, 19:30ean, Gaztestazioan.

Lezama

- > Ahalduntze- eta ongizate-tailerra, Einer Larrabeiti psikologoaren eskutik. Urriaren 6an, 8an eta 22an. Izena ematea: berdintasuna@txorierri.eus.

Txapelketak

Zamudio

- > Wii lehiaketa: Just Dance. Urriaren 2an, 20:00etan, Gaztestazioan. Izena ematea: urriaren 5era arte.
- > Futbolin txapelketa. Urriaren 16an, 20:00etan, Gaztestazioan.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Elena Lombana (elk.553)
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215
10:00-14:00 / 16:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)

ZAMUDIO
Loteria Nacionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

PATXI
KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabarroa nagusia | 48100 SONDICA (Bizkaia) | Tel. 944 522 307 | info@patxi.coop | www.patxi.coop

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

aurragatik gorta

ARROKULARITZA - TASAZIOA
ALOR-GITZAK - ERKULU BATZAK
SAL EROSKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 Ionia - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

Txorierriko **BERBALAGUNAK**

11 aukera euskara praktikatzeko! Herrian - kalean- lagunekin - parkean - paseoan - kafetegian

euskaraz amets



INFORMAZIOA ETA IZEN - EMATEA: 635.75.35.95 edo txorierr.berbalaguna@gmail.com

LAGUNTZAILEAK:



Txorierra
LOKAL SINDIKATUA

ANTOLATZAILEA:



Txorierra
KOMUNITARIA

BABESLEA:



BERTAKO PRODUKTUEN MERKATUA

2021-10-02

NEKA ZAMUDIO



PIPER EGUNA
BERTON EROSI ETA BERTON ERRE!!!

Antolatzailea

Laguntzailea

Laguntzailea



ZAMUDIOKO
LUR LANGILEEN
ETXEA

